

É

QUE
IDEAS.

INTELIGENCIA

QUE?

IMPULSO Y
(NUEVOS) P

INTERLOC

HÍBRIDACIÓN
DE
ESTILAS

- ESPACIO FÍSICO EN EL POLO ESTO ^{ESPACIO} ^{TIEMPO}
- PROYECTOS IMPULSADOS DESDE EL POLO ^{PARA IMPULSAR LA EDUCACIÓN} ^{EN CAS}
- LA PROPIA ORGANIZACIÓN DEL POLO
(HORARIOS DE CAS PROPUESTAS / SERVICIOS /
FORMACIONES PARA ES.)

FESTIVIDADES
EN TRANSICIÓN
Y CAMBIO
NUEVOS MODELOS
TRANSCULTURALES
Y TRANS... -

Responsabilidad
comunitaria
y planes
de acción

El rol
de los
actores
en el
proceso

EKONOPOLO

Harrobi plazan Ekonomia
Sozial eta Solidarioaren Polo bat
abian jartzeko proposamena

Bilbao Ekintza 2018



EKONOMIA SOCIAL ETA SOLIDARIOA BULTZATZEKO ZENTROA
CENTRO PARA EL IMPULSO DE LA ECONOMIA SOCIAL Y SOLIDARIA




El amor como los panes en el horno y el grano en el campo
Biko Zerua, San Francisco eta Estaketa
Taldeak Koordinatuta

EKONOPOLO



EKONOPOLO

Harrobi plazan Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) Polo bat abian jartzeko proposamena



2018ko urtarrilaren eta ekainaren artean garatutako proposamena, Bilbao Ekintzak bultzatua, AUZOKIZUNA 2020 planaren esparruan, REAS Euskadirekin koordinatuta.

ColaBoraBorak zuzendutako kodiseinu prozesu bat, hainbat erakunde eta pertsonaren elkarlanari esker egina.

Dokumentu honen itzulpena HORI-HORIK gauzatu izan du.

Lan kolektibo honen emaitza txosten honetan zehaztu da, eta haren edukia *creative commons cc by* sa lizentziaren mende dago.

Kodiseinu-laboretegien irudiak (Olga R  iz) eta EKONOPOLOari buruzko eskemak eta plazaren hondoko irudiak (ColaBoraBora) *creative commons by sa* lizentziaren mende daude.

Txosten honetako gainerako irudiak Internetetik deskargatu dira (hainbat autore), eta bakoitzak bere lizentzia mota du.



AURKIBIDEA

1. EKONOPOLOa kodiseinatzen

2. Aukera fresko eta eraldatzailea

- ESSren printzipio etikoak
- Elkarri lotutako hiru maila
- Ekonomia plural bat
- Tokiko giza garapena, jasangarritasuna eta balio partekatutak

3. ESSren hedapena

- Hedapen hori babesten duten hainbat datu
- ESS Bilbao Ekintzaren ildo estrategiko moduan

4. ESSrako erreferentzia polo bat

- Beta proiektua
- EKONOPOLOaren funtzio gakoak

5. Zer gertatzen da EKONOPOLOan?

- > ESSrako sarrera
- > Ekintzailetza sozial kooperatiboaren ildoak
- > Abian jartzea eta lagun egitea
- > Indartzea, finkatzea eta eraldatzea
- > Orientazioa, prestakuntza egokitua eta enplegu-planak
- > Inbertsioa eta finantzazioa
- > Etika feminista

- > Berrikuntza irekia
- > Merkatu soziala

- Ildo ez linealak
- Espiritua duten jarduerak
- Garapen-printzipioak
- Gertuen duen errealitatearekiko konexioa

6. Non dago EKONOPOLOa?

6.1. Harrobi plazaren inguruan

6.2. Aukerarako espazioak

Hi! / Harrobi Auzo Factory / Harrobia eraikina

- Hiru garapen-fase
- Espazioen ezaugarrien inguruan pentsatzeko zenbait gako
- ESSren unitate mugikorra
- Erreferentziazko hiru espazio

7. Nork osatzen du EKONOPOLOa?

8. Nola funtzionatzen du EKONOPOLOak?

8.1. Gobernamentu-eredu banatu eta erantzunkidea

- > Zer esan nahi dugu *gobernamentu* hitzarekin?
- > Banatua eta erantzunkidea?

- Erakundeen zerbitzuen kooperatiba
- EKONOPOLOaren bazkide motak
- Soziokraziatik ikasten

8.2. Antolatzeko modu soziokratikoa

- > Komunitate artikulatu bat
- > Esku hartzeko bost esparru
- > Hiru eskumen-dimentsio
 - >> Dimentsio estrategikoa
 - >> Kudeaketako dimentsioa
 - >> Dimentsio operatiboa

- Inplikazio-mailak eta pizgarri-sistema

9. Ebaluazio- eta adierazle-sistema

- > PROZESU-adierazleak eta EMAITZA-adierazleak
- > PARTE-HARTZEaren adierazleak
- > TESTUINGURUaren adierazleak

10. Inbertsio- eta finantzaketa-plana

10.1. EKONOPOLOaren espazioetako inbertsioa

10.2. Apustuaren neurriko aurrekontua

10.3. Diru-sarrera dibertsifikatuak

11. Hurrengo urratsak







1. EKONOPOLOa kodiseinatzen

EKONOPOLOaren lehen proposamen honen diseinua kosorkutzako eta kodiseinuko lan kolektiboaren prozesu baten emaitza da. Bere horretan, EKONOPOLOak ordezkatzeko abian dagoenean izango duen funtzionamenduaren berezko logikan balioan jarri beharreko eta garatu beharreko egiteko moduak eta NOLA horiek.

Prozesua 2018k urtarrilaren eta ekainaren artean garatu da, eta hainbat egoera eta momentu hartu ditu barne:

- Bigarren mailako iturrien analisia.
- Elkarrizketa kualitatiboak.
- Poloaren beraren testuinguruari buruzko kasuen inguratzea eta analisia.
- Erreferentziatzeko proiektuetarako bisitak: Bartzelona, Madril eta Zaragoza.
- Kosorkuntza laborategiak, poloarekin lotutako hainbat eragile motari zuzendutako maiatzaren 15ean, 16an eta 17an.
- *C2C Conversaciones* ESSren sarearen ekintzailatza, garapen eta finkatzeari buruz REASek estatu-mailan Madrilan antolatutako topaketan, 2018ko otsailaren 15ean eta 16an, parte hartzea.
- AUZOKIZUNA 2020 foroaren garapenean parte hartzea, jarduera ekonomikoari eta enpleguari buruzko 4. ardatzean.
- Lan-saioak eta jarraipen- eta kontraste-bilerak Bilbao Ekintzarekin eta REAS Euskadirekin prozesu osoan.

Espero dugu prozesu honetan parte hartu duzuenak islatuta eta ordezkatuta sentitzea haren emaitzarekin; ez horrenbeste balizko iritzi edo ekarpen pertsonalak agertzen direlako, baizik eta parte sentitzeagatik apurka-apurka itxura hartzen joan den gorputz kolektiboan, orain dokumentu honetan hezurramitzen denean. Orain arte parte hartu ez duzuenek, espero dugu dokumentua nahikoa bizigarria izatea hurrengo urratsetan parte hartzeko eta EKONOPOLORantz lanean jarraitzeko eta aurrera egiten jarraitzeko.

**Elkarrekin bakarrik da posible
ESKERRIK ASKO!**




2. Aukera fresko eta eraldatzailea

Aldaketa-garaietan bizi gara, dimentsio ugariko krisi-garaian: balioen krisia, gizartea eta politika antolatzeko moduena eta ekonomia- eta ekoizpen-ereduarena. Erronka handiak daude garai honetan, eta modu integralean eta kolektiboki egin behar diegu aurre. Garai honetan, irtenbide fresko, erakargarri eta eraldatzaileak behar ditugu.

Aldaketa-testuinguru horretan, indarra hartu du ekonomia sozial eta solidarioak (ESS). Aukera hori osatzen du gizartearen eta enpresaren, eta gizartearen eta komunitatearen, arloko ekimen multzo geroz eta handiago batek, etekin ekonomikotik harago, ekonomia pertsonen zerbitzura jartzen duenak. Ekonomia- eta ekoizpen-sare berri bat da, modu orekatuan indartzen dituen tokiko giza garapenarekin lotutako faktoreak, gizartearen kohesioa eta justizia soziala, inguruaren zaintza eta baliabideen erabilera ekologikoa.

ESSren oinarria da baldintza egokiak garatzea eta zaintzea bizitza jasangarria izan dadin, komunitatearekiko loturak eta konpromisoa indartuta eta lurraldea osoaren balio erantsirako ekarpenean indar eginda.



ESSren printzipio etikoak

ESSk, funtzionatzeko, sei printzipio etikotan oinarritutako gobernamentu-, ekoizpen-, banaketa- eta kontsumo-ereduak aplikatzen ditu; honako hauek dira sei printzipio horiek:

1. Justizia eta ekitatea, bitarteko eta helburu moduan.
2. Enplegu duina eta egonkorra.
3. Inguruarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa.
4. Elkarlana, sare-lana eta elkarren laguntza.
5. Pertsonak kapitalari gailentzea.
6. Kudeaketa demokratikoa, parte-hartzailea eta gardena.

ESSren esparruari buruz: <https://www.economiasolidaria.org/>


Printzipio horietan sakontzeko, kontsultatu REASen ESSren printzipioen gutuna: <https://www.economiasolidaria.org/carta-de-principios>



Elkarri lotutako hiru maila

EKONOPOLotik ekonomia sozial eta solidarioaren inguruan egingo da lan, modu integralean, hiru zapore konbinatu, hiru zutabe edo hiru maila osagarri kontuan hartuta:

1. **ENPRESA IZATEKO ETA EKONOMIA EGITEKO BESTE MODU BAT.** Lehenik eta behin, jarduteko lehentasunezko maila moduan dago ESS, egungo egoerari dagokionez dituen garapen-aukerak tarteko, enpresa izateko modu desberdin gisa, modu zabalean ulertutako esparru ekonomiko gisa, modu transbertsalean edozein sektoreri edo ekoizpen-jardueren eta zerbitzuen motari aplikatu dakioketena balio-kate osoan.
2. **ESKU-HARTZE SOZIALERAKO TRESNA.** Bigarrenik, hasierako misioari begiratuta, ESS da gizarteko ezberdintasuna amaitzeko esku-hartze sozialerako tresna bat, inklusio-bide bat, bazterkeria-egoeran edo zaurgarritasun handiko egoeran dauden pertsonen zerbitzura dagoena, bereziki zainduta enplegu inklusiboaren eta gizartera eta lanera sartzeko esparrua.
3. **KOMUNITATEAREN ZERBITZURA.** Hirugarrenik, ESS komunitatean eta komunitatetik egindako garapenaren pieza gako gisa, tokiko testuinguruetara eta harremanetara lotuta, nahitaez merkantilizatuta edo monetizatuta ez dauden ekonomia-motetatik, adibidez: denbora-bankuak, truke-sistemak, elkarren babes- eta zaintza-sareak, txanpon osagarriak, autofinantzatutako komunitateak, kontsumo taldeak, komunitateko baratzeak edo trantsizio-auzoak.



Ekonomia plural bat

ESS eredu porotsu bat da, ekonomia eraldatzaileen beste proposamen batzuen osagarria. Haiekin elikatzen da, haien helburu eta balio ugari partekatzen ditu, eta haiekin batera ekonomia plural bat osatzen du. Agian, printzipioei lotuta lotura handiena ekonomia feministarekin ditu; hark, bizitzaren gozamina, zaintza eta erreproduktzioa jartzen ditu erdigunean. Badu lotura garatzen ari diren beste proposamen batzuekin ere, esaterako, ekonomia zirkularrarekin, kolaboratiboarekin, onura komunarenarekin, zuzenarekin (P2P), zilarrezkoarekin, berdearekin eta abar.

Horrez gain, ESS plurala da forma juridikoei dagokienez ere; bertan sartzen baitira hainbat forma dituzten antolakundeak: kooperatibak (ESSn, gehienbat ekimen sozialekoak deritzenak), elkarteak eta fundazioak (hirugarren sektorea), mutalitateak, kofradiak, lan-sozietateak eta komunitateko beste ekimen informel batzuk, hala nola kontsumo-taldeak, denbora-bankuak, elkartruke-merkatuak eta abar.

Hori dena ikusarazten da RIPESSen erreferentziazko kontinente arteko sarea sare nagusizat duen elkarlotura batean; estatuan REAS en Redek ordezkatzeko du, eta haren tokiko nodoa REAS Euskadi da. Gainera, Euskadin beste hainbat entitate daude, ibilbide eta presentzia luzea dutenak eta beste ekonomia plural horiek ordezkatzeko dituztenak. Haien artean dago EGES, ekonomia sozialeko familia guztiak biltzen dituenak, baita beste eragile garrantzitsu batzuk ere, esaterako, Gizatea, Olatukoop, NER Group, NESI Euskadi, Wikitoki edo Circular Basque.

du ekonomiko horietako asko agertzen dira Eusko Ikaskuntzak 2016an argitaratutako Beste ekonoEremia bat(zu)etarako trantsizioa(k) lanean.
[http://www.eusko-ikaskuntza.org/files/eremu_nagusiak/dokumentuak/ekonomia/SEE_ekonomia-bat\(zu\)erako_trantsizioa\(k\)_es.pdf](http://www.eusko-ikaskuntza.org/files/eremu_nagusiak/dokumentuak/ekonomia/SEE_ekonomia-bat(zu)erako_trantsizioa(k)_es.pdf)

RIPESSi buruz: <http://www.ripess.org/?lang=es>. REAS Euskadiri buruz: <https://www.economiasolidaria.org/reas-euskadi>. Hasiara batean ESS politiki gertuen egon daitezkeen Euskadiko ekonomia sozialaren beste familia batzuei buruz: EGES, <https://eges.eus/es-eges>; Gizatea ;<http://www.gizatea.net>; Olatukoop, <http://olatukoop.net>; NER Group, <http://www.nergroup.org/es-es>; NESI Euskadi, <http://neweconomyforum.org/es/nosotros>; Wikitoki, <http://wikitoki.org>; Circular Basque, <http://www.circularbasque.eus/>.



Tokiko giza garapena, jasangarritasuna eta partekatutako balioak

ESS hertsiki lotua dago **tokiko giza garapenarekin (TGG)**, komunitate-mailan gaitasun eta aukera indibidualak eta komunitatekoak handitzean oinarritutako garapen-ereduarekin; eredu horretan helburua da proiektu jasangarri eta ekitatiboak eraikitzea, erreferentzia gisa pertsonak hartuko dituztenak, haren garapenaren subjektu aktibo gisa, prokomun globalak sortuta eta mantenduta, haien tokian ekoizita eta birbanatuta eta lurraldera egokituta.

ESS ere ederki dator bat Nazio Batuek 2030 Agendarako zehaztutako **garapen jasangarriaren 17 helburuekin (GJH)**. Elkarri lotutako eta elkarren mendeko helburuak dira: Pobreziaren amaiera; goserik ez; osasuna eta ongizatea; kalitatezko hezkuntza; genero-berdintasuna; ur garbia eta saneamendua; energia eskuragarria eta kutsatzen ez duena; lan duina eta hazkunde ekonomikoa; industria, berrikuntza eta azpiegitura; ezberdintasunak murriztea; hiri eta komunitate jasangarriak; ekoizpen eta kontsumo arduratsuak, klimaren aldeko ekintza; ur azpiko bizitza; lurreko ekosistemen bizitza; bakea, justizia eta erakunde solidoak; eta helburuak lortzeko aliantzak.

TGG eta GJHk bat datoz Bilboko Udalak egindako apustuarekin, hiria leheneratzeagatik nazioarteko erreferentzia izateaz gain, balio partekatuen hiria izateagatik erreferentzia izatekoa. Balio horiek (17 horiek ere), **Bilboko balioen gutunean** jaso ziren hasiera batean. *Konpromisoa, konfiantza, elkarbizitza, erantzunkidetasuna, sormena, dibertsitatea/inklusioa, esfortzua, zintzotasuna, identitatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ilusioa, justizia soziala, parte-hartzea, Giza Eskubideen errespetua, osasuna, elkartasuna, ingurumenaren jasangarritasuna.*

Tokiko giza garapenari buruz:

http://www.hegoa.ehu.es/es/investigacion/desarrollo_humano_local/

2030 Garapen Jasangarriaren helburuei buruz:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible>

Bilbao Balioen Hiriari buruz: <http://balioenhiria.bilbao.eus>

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible>

Sobre Bilbao Balioen Hiria: <http://balioenhiria.bilbao.eus>



3. ESSren hedapena

Azken urteetan, ESS indartu eta indartu ari da, eta hainbat ekimen garatu ditu, garatzen ari diren joerak eta sektoreak bereziki zainduta. Horrela, ESS presente dago jada bizitzaren esparru guztietan: finantzetatik energiara, osasunetik mugikortasunera, nekazaritzako elikagaietatik tokiko merkataritzara, teknologiatik ingurumenaren kudeaketara, diseinutik aseguruetara, zaintzatik industria-fabrikaziora, ostalaritzatik plataformako kooperatibismora, kulturatik berrerabilpenera, kudeaketatik hondakinen eraldaketara, eraikuntza eta birgaitzetik komunikaziora, hezkuntzatik aisiara eta turismora.

ESSrekin ikusten den aukera aldeko talde txikietatik harago iritsi dadin eta geroz eta eraginkorragoa izan dadin gizarte osorako aukera moduan, haren potentzial guztia erabili behar du. Gai hori zentrala izan zen Bilbon 2016ko azaroan egindako ESSren Nazioarteko II. Kongresuan. Han jada hauteman ziren ESSk erabilera hori egiazko bihurtzeko aurre egin beharreko erronka batzuk, hein handi batean honako hauekin zerikusia dutenak:

- Gehiago irekitzen saiatzea, gizarte mailako aitorpena eta ikusgarritasuna.
- Hazteko eta eragiteko gaitasunak garatzea eta antolaketa- eta ekoizpen-ereduak eta zerbitzuak ematekoak optimizatzea eta finkatzea ESSren logikatik.
- Enpresen kopurua handitzea eta haien tipologiak eta jarduera-esparruak dibertsifikatzea ekintzailetza sozial kooperatiboa indartuta,
- Berrikuntza handitzea barruko ekintzailetzaren eta elkarren kooperazioaren logiketarik.
- Inbertsiorako eta finantzaketarako tresnak eta baliabideak indartzea.
- Berezko tresnak sustatzea, hala nola auditoretza soziala, erosketa publiko arduratsua edo merkatu soziala.
- Politika publikoak eta arau-esparruak garatzea, ESSren eragin sozioekonomiko positiboak eta eraldatzaileak kontuan hartuko dituztenak.

ESSren Nazioarteko II. Kongresua. Ekonomia sozial eta solidarioaren hedapena, 2016ko azaroan Bilbon egindakoa. <https://esskongresua.net/es/congreso-economia-social-solidaria/>

Hedapen hori babesten duten hainbat datu

ESS hedatzeko aukera datu kuantitatiboetan oinarritzen da; datu kuantitatibo horiek, ekonomia sozial osoaren ikuspegi panoramiko batean (askotan iturriak komunak dira eta ezin dira banatu), lagundu egiten dute egungo errealitate eferbeszentea islatzen eta haren garapen handienaren potentzial pozgarria ikusten.

- Munduan 2,6 milioi kooperatiba daude, G-20ko herrialdeetako enpleguaren % 12 sortzen dutena, eta 2,2 trilioi dolar fakturatzeko dituzte. Europan, ekonomia sozialak 2,8 milioi entitate ditu eta 14,5 milioi lanpostu sortzen ditu (% 6,5 EBn); BPGren % 8 dakar.
- Geroz eta jende gehiago da kooperatiben parte: Finlandiako biztanleriaren % 72, Kanadako biztanleen % 50, Uruguaiaren % 30 eta Singapurrekoen % 25.
- Espainiar estatuan, ekonomia sozialak 2008tik eutsi egin dio krisiari, eta are gehiago, etengabe hazi da. Ordutik 29.000 enpresa eta 190.000 lanpostu sortu ditu.
- Euskadin, REASen elkarte-sarearen esparruan soilik, 71 erakunde daude guztira, eta 121 milioi euro fakturatzeko dituzte, 2.849 lanpostu sortzen dituzte (% 66 emakume, 665 gizarteratze-prozesuan, plantillako soldata-propozioa 1,70/1koa da). Horrez gain, 4.340 boluntario daude.



ESS Bilbao Ekintzaren ildo estrategiko moduan

Bilbao Ekintzak, jarduera ekonomikoa eta enplegua erakarri eta sortzeko helburuarekin, lehentasuna ematen dio hiriarentzako lau sektore estrategikoetan esku-hartzea egiteari. Honako hauek dira, adibidez: 1) Ekoteknologia eta hiri-konponbideak, 2) Zerbitzu aurreratuak, 3) Artea, teknologia eta diseinua eta 4) Turismoa, osasuna eta bizi-kalitatea.

Izaera bertikaleko sektore horiei gehitu nahi zaie **ESS, izaera horizontaleko edo transbertsaleko sektore estrategiko berri baten modura**. Sektore hori ez dago lotuta gai edo jarduera-esparru jakin batekin, baizik eta NOLA egin indartuta, eta ez ZER.

Bilbao Ekintzaren izaera nagusiki jeneralista dela medio, ildo estrategiko horiek berezko lan-talde bat duenez, gehienbat eragile espezializatuetan oinarrituta garatzen dira, esparru bakoitzean erreferentziazkoak direnetan, lankidetzaz hitzarmenen edo bideratzeen bidez. ESSren kasuan, EKONOPOLOa ildoaren jarduketa nagusi moduan garatzeko, REAS Euskadi da erreferentziazko eragilea.

Sektore transbertsal berri hori garatzeko, **komenigarria da Bilboko Udalak ESSren plan estrategiko bat izatea** (edo, gutxienez, ekonomia sozialarena), politikak, baliabideak, programak eta ekintzak definitzeko, EKONOPOLOa bertan zedarrizteko eta hari zentzua emateko. Komenigarria litzateke Bizkaiko Foru Aldundian eta Eusko Jaurlaritzan ere.

Estatu-mailan, agian adibide garbiena Bartzelonako Udalarena da. Hark komisariotza bat du ESSren garapenerako:

<http://ajuntament.barcelona.cat/economia-social-solidaria/es>. ESS sustatzeko plan bat 2016-2019rako (goiko irudiaren eskema),

http://base.socioeco.org/docs/planimpulso-ess_web.pdf eta alor espezifiko bat Barcelona Activan <http://www.barcelonactiva.cat/barcelonactiva/es/que-es-barcelona-activa/altres-economies/index.jsp>. Interesgarriak dira ere Ciudad de Madrid ESSren plan estrategikoa http://comess.reasmadrid.org/wp-content/uploads/2017/03/mesa2_ponencia_Resumen_ejecutivo.pdf eta ARACOO, Kataluniako Generalitatearen Laneko, Gizarte Gaietako eta Familien Sailak

sustatutako programa bat; bertan, hainbat ekintza daude, eta bertan zedarriztuta dago Ateneus Cooperatius delakoen laguntza ildo, eta haien helburuak zerikusirik handia du polo honekin: <http://aracooop.coop>.



4. ESSrako erreferentzia polo bat

ESSren hedapen horri laguntzeko helburuarekin, aukera sortzen da Bilbon ekonomia sozial eta solidarioaren polo bat sortzeko, EKONOPOLO izena eman zaiona. Bilbao Ekintzak bultzatu du polo hori, REAS Euskadiren erreferentziazko sareari eta antzeko beste sare batzuei lotuta. AUZOKIZUNA 2020 Jarduera Partekatuko Erakundeen arteko Planaren esparru berrian (bertan, poloa da 4. ardatzeko, jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren inguruko ardatzeko, lehentasunezko proiektu bat da) eta Auzo Factory zentroyen sarearen barruan. Poloa esanguratsua izan behar da Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala auzoentzat eta hiri guztiarentzat, eta loturak izan behar ditu Euskal Herrian, estatuan eta nazioartean.

Polo bat, honela ulertuta:

- Energia metatzen eta irradiatzen den eremua.
- Eragile-biltzaile bat, aukera katalizatzaile bat eta aukeren indartzaile bat.
- Erakarpen-gune bat, gai jakin bat garatzeko baldintzak eta neurriak bat etortzen diren lekua.
- Geografikoki hurbil dauden entitateen multzo bat, sektore edo interes-eremu berarekin zerikusia dutenena.

- Erreferentziazko gune bat askotariko eragileentzat. Haien funtzioek eta ekintzek ordeztu egiten dituzte interes-taldeak eta balio-kateak, eta haiek osatzen dituzte.
- Topagune bat, modu estrategiko eta artikulatua erronka kolektiboei aurre egiteko, eragina handitzeko eta mozkin komunak lortzeko elkarlanean aritu nahi duten pertsonentzat eta antolakundeentzat.
- Aukera fresko bat, edozein konbinaketa motara irekia.

Azken finean, EKONOPOLOa ESSra sartzeko ate abegitsu bat da. ESS, gertuko balio, helburu eta/edo jarduteko moduak dituzten beste ekonomia batzuk bultzatzeko plataforma bat. **Ekonomia kooperatibo bat, modu irekian eta artikulatua erreferentziazko sareak, antolakunde singularrak, administrazio publikoak, enpresak, eragile sozialak, pertsona ekintzaileak, langabeak, bizilagunak, ikasleak eta abar topatzeko, elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremana sortzeko, ESSren helburu berriak modu partekatua bilatzeko.** Leku bat (fisikoa eta mentala), bertatik ildoak, tresnak eta baliabideak jartzeko, modu integralean lagunduko diotenak ESSri lotutako proiektuak sortzen eta garatzen.

Auzokizuna 2020ri buruz: http://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=1279155372248&pagename=BilbaoLaVieja%2FBLV_Contentido&fp:idiomaSesion=es_ES

Auzo Factory zentroen sareari buruz: <http://bilbaogazte.bilbao.eus/es/programa/auzo-factory-bilbao/>

Beta proiektua

EKONOPOLOa bezalako proiektu kolektibo bat konplexua da hainbat mailatan, eta praktikatik heldu eta zehaztu egin behar da. Hori dela eta, proposatu da EKONOPOLOaren abiarazteari heldzea ez aurrez osorik diseinatuta dagoen zerbaiten moduan, baizik eta **hiru urterako proiektu pilotu moduan, urtez urte ebaluatzen den proiektu moduan. Hori arriskuak murrizteko eta erantzuna eta erabilgarritasuna erabileratik bertatik probatzeko modu bat da.**

Prozesu flexible, berrikusgarri eta iragazkor bat, premisa argi batzuetatik abiatuta eta errazenaren / estrategikoenaren / berehalakoenaren konbinaketa batetik hasita urratsez urrats forma hartuko duena, poloaren hainbat dimentsio aktibatuko dituena eta eragileak batuko dituena. Egitetik aurrera egingo duena, prozesutik ikasten, elkarren aitorpena errazten, aukera posible guztietatik egokienak identifikatzen, prozesuaren jasangarritasunari begiratzen, ekintzaren tentsio sortzailea mantentzen, baina larritasunaren eta gehiegizko esperantzaren biktima izan gabe.

Aldi berean, beste leku batzuetan nola ari diren jakiten utziko digun prozesu bat, ez soilik gure kasuan aplikatzeko, baizik eta harremanak, konplizitateak eta sareak sortzeko.



EKONOPOLOaren funtzio gakoak

Erakarpena >

Harrera-, pedagogia-, dibertsifikazio- eta hedapen-funtzioarekin. Jarduera-proposamen argi, dibertso, erakargarri eta erabilgarriarekin.

Topaketa >

Elkar ezagutzea eta nahastea.

Konexioa >

Askotariko pertsonen eta antolakundeen artean, haien beharretatik, desioetatik, gaitasunetatik eta esperientziatik.

Ekintza >

Egiten ikastetik, elkarlanetik eta elkarren kooperaziotik, praktikatik eta bizitaketatik egindako hausnarketatik.

Bultzada >

Gizarte eta enpresa alorreko eta gizarte eta komunitate alorreko proiektuak abiaraztea, garatzea, finkatzea eta eraldatzea.

Zaintza >

Pertsonena eta proiektuena, harreratik lagun egitera, konfiantza-harremanak, elkarren laguntza eta elkarrekotasuna sortuta.

Osagarritasuna >

Harremanean jartzea beste eragile eta zerbitzuekin.



5. Zer gertatzen da EKONOPOLOan?

EKONOPOLOak balioan jartzen du, artikulatu egiten du eta indartu egiten du ESS, haren parte diren eragileak oinarri hartuta. Katalizatzaile bat da, harremanak eta emaitzak maximizatzeko, koordinaziotik, sinergien sorreratik, elkarren kooperaziotik, bikoiztasunak eta gainjartzean minimizatuta eta eragileen arteko eskumenen osagarritasuna maximizatuta. Plataforma bat da, bertatik optimizatzeko ESStik egindako proiektu, programa eta jarduera guztiak. Behatoki bat ere bada, bertatik identifikatzeko sortzen ari diren aukerak eta esparruak, egun arreta txikia dutenak edo lan handiagoa eskatzen dutenak.

Jarraian aurkeztu dira, laburtuta, EKONOPOLOaren inguruan garatu beharreko jarduketa-ildo posibleak, jarduera-motak eta zerbitzuak.

ESSren elkarrekin lotutako hiru maila		
ENPRESA IZATEKO ETA EKONOMIA EGITEKO BESTE MODU BAT	ESKU-HARTZE SOZIALERAKO TRESNA	EKONOMIA KOMUNITARIOA
Hiru mailetarako lehentasunezko interes-taldeak		
Ekintzaileak, herritarren ekimenak, ESSko enpresak eta esparru horretan sartzeko egokitu edo eraldatu daitezkeen beste antolakunde eta enpresa batzuk.	Bazterkeria-egoeran edo zaugarritasun handiko egoeran dauden biztanleria-sektoreak. Ekintza transbertsalak, talde espezifikoetara zuzendutakoak: emakumeak, migratzaileak, gazteak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, iraupen handiko langabeak eta abar.	Hainbat profiletako biztanleak, eragile sozialak, aktibismoa eta boluntariora... EKONOPOLOa gehienbat oinarritzen da Bilbo Zaharrean, San Frantziskon eta Zabalan kokatutako esperientzietan, Gertutasunagatik, eta etorkizuneko transferentzietarako probazko lurralde moduan.

Zer gertatzen da EKONOPOLOan (jarduketa-ildoak)		
ESSrako sarrera		
Ekintzailetza sozial kooperatiboaren ildoak	Enpresak indartzea, finkatzea eta eraldatzea	Orientazioa Egokitutako prestakuntza eta enplegu inklusiboa
Abian jartzea eta jarraipena egitea		
Inbertsioa eta finantzaketa etikoa eta banatua		
Etika feminista		
Berrikuntza irekia		
Merkatu soziala		

> ESSrako sarrera

ESSk orokorrean eta EKONOPOLOak zehazki ematen dituen aukerak ezagutaraztea, dibulгатzea eta inguratzea. Laguntzea ESS eguneroko bizitzan integratutako zerbaiten moduan ulertzen, herritar, langile edo kontsumitzaile moduan eragiten digunean.

- Harrera eta orientazioa, zerbitzuen eta aukeren mapa pertsonalizatua, parte hartzeko modua eta loturak.
- Informazio-zerbitzuak, orientazioa, eragileen eta proiektuen mapa, iragarki-taula, agenda komuna.
- Gaitasun-tailerra, *networking* ideiak eta jarduerak identifikatzeko eta hazteko laborategiak,
- Ikusgarritasun-, dibulgazio- eta sentsibilizazio-jarduerak hainbat publikorekin, oraindik ESS ezagutzen ez dutenengana modu erakargarrian, garbian eta

praktikoan iristeko lehentasunezko helburuarekin. Ekosistema osoa ikusaraztea: haren aukera esparru ekonomiko-ekoizlean eta enplegu-sorgunean; haren presentzia produktu eta zerbitzu ugariaren eguneroko bizitzan eta haren eragin eraldatzaileak.

> Ekintzailtza sozial kooperatiboaren ildoak

Prestakuntza eta ekimen ekonomiko eta enpresakoak irudikatzeko eta garatzeko prozesuan lagun egitea. Eragin soziala duen ideia bat duen edozein pertsona edo kolektibok EKONOPOLOa jotzea hura garatzeko leku egokitzat.

- Programa osoak garatzea (orokorrak edo publiko eta/edo sektore espezifikoekin) + Prestakuntza-kapsula tematikoak + Egokitutako tresnak eta metodologiak + Euskadiko ESS ekintzailtza-sarea.
- Programa bereziak, ESSren esparruko interes estrategikoko jarduera-esparruei edo taldeei zuzenduak.
- Ekintzailtzarekin lotutako programak edo jarduerak eskaintzen ari diren eragile pribatuen arteko koordinazioa (programa komunak, elkarlaneko jarduerak, tresna partekatuak). *Koop Fabrika* programa jada Gipuzkoan garatzen ari da, eta 2018an lan egin da ikusteko nola eraman daitekeen Bizkaira. Aukera ona izan daiteke: <http://koopfabrika.eus/>
- Erakundeetako ekintzailtza-zerbitzuekin koordinatzea, bi noranzkotan lan egiten: 1) Baliatzea eragile horiek dagoeneko eskaintzen dituzten zerbitzuak, adibidez: ekonomia- eta finantza-ikerketa, legezko eraketa-izapideak, baimenak, lizentziak, laguntzak, laneko eta ingurumeneko arriskuak, tributazioa eta abar; eta 2) ESSren logika sartzeari haien ekintzailtza-programa jeneralistetan, ikastaroetako prestakuntza-moduluen bitartez + edozein erakunderi ESS sartzeko oinarritzko kita.

> Abian jartzea eta lagun egitea

Ekimen ekonomikoak edo enpresakoak formalizatzen, abian jartzera eta haiei jarraipena egitera bideratutako zerbitzuak, baliabideak eta jarduerak. ESSrekin lotutako ekimen bat garatzen ari direnek EKONOPOLOa jo behar dute adituen eta norberaren antzeko egoeran dauden beste pertsonen laguntza topatzeko lekutzat, prozesuak partekatze eta esperientziak trukatzeko lekutzat.

- Leihatila bakarra, laguntza tekniko, aholkularitza espezializatua.
- Forma juridikoen, estatutuen eta barruko araudien inguruko aholkularitza.
- Lagun egitea, banakako *mentoringa* eta *mentoring* kolektiboa.
- *Coworking*-espazioa eta enpresa haztegia.
- Praktika-komunitateak, jakintzak partekatzea, esperientziak eta jardunbide egokiak, arrakastak ospatzea eta porrotak aztertzea.
- Merkatuko testak eta ebaluazio partekatuak.
- Auditoria soziala.

> Indartzea, finkatzea eta eraldatzea

Garapena, dibertsifikazioa eta berrikuntza erraztuko duten prozesuak, zerbitzuak eta tresnak, gehienbat elkarren kooperazioaren eta enpresak eraldatzearen bitartez. EKONOPOLOa enpresentzako eta beste eragile sozial eta ekonomikoentzako inguru egoki eta sinergiko moduan, dela ESSren parte direnentzat, dela jomuga gisa ikusten dutenentzat.

- Kudeaketa-ereduak eta -tresnak hobetzea eta profesionalizatzea.
- Negozio-eredu berriak garatzea, tokiko balio-kateak eta monetizazio-estrategiak definitzea eta garatzea.
- Barruko ekintzailtzako eta elkarren kooperazioko proiektuak sortzea, berrikuntzari eta dibertsifikazioari lotutakoak.
- Garapenerako lankidetzak, bitarteko entitateak edo bigarren mailako kooperatibak sortzea, lagunduko dutenak eskaintza bateratu bat ikusarazten, merkatu kuota berriak eta handiagoak ahalbidetuko dituenak.
- Ekonomia sozialeko eragileetarako hurbilketa kualitatiboa eta aplikatua, baita harremanak sortu nahi dituzten edo beste ekonomia batzuetara trantsizioa egin nahi duten ekonomia tradizionalako eragileetarakoa ere.
- ESSren esparrura egokitzea esparru kapitalistatik datozen enpresak.
- Krisian dauden enpresetako esku-hartzea, komunitateko enpresak sortzea, industria birmoldatzeko egoerak, oinordetzak eta abar.

> Orientatzea, prestakuntza egokitua eta enplegu-planak

ESStik enplegu inklusiboaren erronkan eta laneko beste aukerak bilatzean konpromisoa duten baliabideak, programak eta ekintzak. Lan bila dabilzanek edo beren enplegagarritasuna hobetu behar duenek EKONOPOLOa hauteman behar dute leku abegitsu bat bezala, aukerak maila indibidual eta kolektiboan ematen eta indartzen dituen leku bat bezala.

- Gizarte eta lan alorreko orientazioa eta enplegagarritasuna hobetzeko prestakuntza egokitua. Banakako eta taldeko ahalduntze-ekintzak eta balioan jartzea norberaren gaitasun eta ahalmenak. Gizarte eta hezkuntza alorreko prestakuntza-ekintzak, lanaren aurrekoak, gizarteko eta laneko bitartekaritzakoak, edo enpleguarekin tartekatutakoak.
- Enplegu inklusiboaren, urte-sasoikoa ez denaren eta kalitatezkoaren sorkuntza berrira bideratutako programak, garapen pertsonalerako eta profesionalerako aukera emango dutenak.
- Jarduera-esparru, intereseko talde edo lurralde-gune espezifikoetara bideratutako enplegu-plan bereziak, EKONOPOLOa kokatuta dagoen auzoei arreta berezia ematen dietenak, kontuan hartuta haien langabezia-tasa eta gizarte-ezberdintasun handia.
- Enpleguaren, lanaren, edo bizitza aktiboa eta komunitatearentzako ekarpena ulertzeko beste modu batzuen bidezko gizarteratze-ildoak.

- Ikasketa-zerbitzuko proiektuak Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeekin, curriculum akademikoa eta ESS konbinatuko dituztenak.

> Inbertsio eta finantzaketa

ESSren eragileen eskura jartzea inbertsio- eta finantzazio-modu berriak, eta sustatzea finantza-kultura berri bat, etikoagoa, banatuagoa eta ardura sozial handiagoa duena. Beren proiektuak aurrera eramateko beste finantza-aukera batzuk bilatzen ari direnek jakin behar dute horietako asko EKONOPOLOaren inguruan daudela.

- Finantzaketarako eta inbertsiorako tresnak eta programak garatzea finantza etikoetatik, enpresa sozialetako inbertsio-funtsetatik, funts mutualistetatik, finantzaketa kolektiboa egiteko moduetatik eta abarretatik.
- Inbertsio sozial erantzunkidearen kultura sustatzea.
- Inbertsio-topaketak.
- Bizitza desfinantzariotzeko eta ekonomia pertsonen zerbitzura jartzeko ekintzak.

> Etika feminista

Feminismoak, haren alderdi guztietan, kontzeptu eta tresna funtsezkoak ematen ditu gizartea eraldatzeko, baita ekonomiari dagokionez ere. EKONOPOLOa nazioarteko erreferentzia bihurtu daiteke ekonomia feministari dagokionez, bertan praktikan jarri baitaiteke modu aplikatuan.

- Etika feministaren printzipioak eta zaintzen logika sartzea lan-inguruetan, ekintzailtza-proiektuetan eta beste esparru profesional batzuetan.
- Honako hauek aplikatzen saiatzea:
 - Patriarkalak ez diren harreman-, antolakuntza- eta komunikazio-moduak.
 - Bizitza erdigunean jartzera bideratutako formulak, bizitza produktiboaren eta erreproduktiboaren alderdiak berrerekatuta eta berriz banatuta, denboraren antolakuntza-eredu berriak bultzatuta eta errutinak eta subjektibotasunak kontziliatzeko neurri eraldatzaileak sustatuta.
- ESSren esparruko ekimen zehatzak garatzea ekonomia feministaren logikatik.

> Berrikuntza irekia

Berrikuntza zer eta nola horietan, ESSren eragin eraldatzaileak maximizatzeko ardatz transbertsal moduan, eta horiek bizitzaren alor guztietara hedagarri bihurtzea. EKONOPOLOaren erronketako bat da inguru erakargarri bat izatea modu partekatuan esperimentatzeko eta baldintza egokiak eskaintzea modu irekian berritzeko.

- Errealitateak eta joerak behatzea eta mapa egitea (sektoreak, kontsumo-ohiturak, enplegua, ekintzailletza, kudeaketa-ereduak, finantzaketa eta abar).
- Erronkak, eskariak eta merkatu-aukerak identifikatzea eta esploratzea, modu sortzailean.
- Erabiltzailea erdigunean jartzen duen diseinua, programa, prozesu, metodologia edo tresna berriena.
- Harremana eta aliantzak unibertsitatearekin, sistema zientifikoko eta teknologikoko eragileekin eta berrikuntzako beste eragile batzuekin, hauekin lotutako proiektuetan elkarrekin aritzeko: ikerketa eta prototipoak egitea / analisia eta sistematizazioa / jarraipena, trazabilitatea eta erreplikagarritasuna.
- ESSrekin lotutako herri-laboretegiak garatzea berrikuntza irekitik eta adimen kolektibotik.

> Merkatu soziala

Merkatu soziala da ESS indartzeko eta hedatzeko tresna nagusietako bat, bai eragileen arteko artikulazioari eta kohesioari dagokienez bai haren eskaintza gizarte osoan ikusarazteari dagokionez. EKONOPOLOa erakusleihu bat izan behar da, erakusteko leku bat, erreferentziazko toki bat kontsumo-ohiturak aldatu nahi dituztenentzat.

- Merkatu soziala eta haren tresnak eta ekintzak garatzeko eta mantentzeko laguntza: katalogoak; azoketan, merkatuetan eta beste merkataritza-ekintza batzuetan parte hartzea; kontsumitzaileekiko, merkaturatzaileekiko eta banatzaileekiko aliantzak eta abar.
- Erakusleihu abegitsua eta erakargarria kalean, *show room* gunea eta *pop up* denda, esperientzia erakusleekin.
- Kontratuzko eta erosketa publiko arduratsuko prozedurak egiaz sustatzeko eta aplikatzeko ekintzak.
- ESSren eragileen beraien arteko barne-merkatua hazteko ekintzak.
- Kontsumitzaileek merkatu librearen eta merkatu sozialaren arteko trantsizioa egin dezaten errazteko ekintzak.
- Merkatu sozialarekin eta komunitateko ekonomiarekin lotutako proiektu zehatzentzako laguntza-programa, arreta berezia emango diona EKONOPOLOtik gertuko inguruan garatzen direnei.
- Elikadura-subiranotasunari lotutako ekintza-ildoak, barruan hartu ditzakeena kontsumo-taldeen arteko topaketa- eta dinamizazio-gune bat, kultura-aniztasunari lotutako elikadura osasuntsuaren eskola bat (eta *espezien merkatuari* lotutakoa), hondakinik gabeko sukaldaritza, produktu-dastatzeak, aurkezpenak eta abar.




Ilido ez linealak

- Dibulgaziokoak, ikusgarritasunekoak eta eragin sozialekoak.
- Gizarte-eraldaketarako ahalduntzekoak.
- Orientaziokoak eta prestakuntzakoak (egokitua, aplikatua, esperientziala).
- Enpresa-garapena (ekintzailletza, finkatzea, dibertsifikazioa, eraldaketa).
- Enplegu inklusiboa, lana eta bizitza aktiboa.
- Berrikuntza (soziala, antolakuntzakoak, produktiboa, merkatukoak).

Espiritua duten jarduerak

- Erakargarria eta erakartzailea.
- Praktikoak, esperientziala, erabilgarria eta aplikatua.
- Irekia eta irisgarria.
- Lankidetzakoa, erronka-egilea eta ahalduntzailea.
- Ludikoa, sormenezkoa, inspiratzailea, freskoa.
- Jeneralista eta espezializatuaren artekoa.
- Jarraipenekoak, aldizkakoak eta komunitatea artikulatzekoak.

EKONOPOLOaren kodiseinu tailerretan jardueretarako proposamen berriak azaldu ziren, adibidez: “erESSmus” (erakundearen arteko elkartrukeak), “



Garapen-printzipioak

EKONOPOLOaren bitzta eta jarduera planteatzean, garrantzitsua da kontuan hartzea **hardwareari (eraikina eta beste azpiegitura batzuk), softwareari (arauak, prozedurak, programak eta jarduerak) eta transwareari (fluxuak eta harremanak)** eragiten dietenak. Horretarako, proposatu da diseinu irekitik eta ekodiseinutik datozen printzipio batzuk aplikatzea, adibidez: software librea, permakultura eta *open space*.

- **Software Librearen 4 askatasunak**
 - 0.- Kopia eta erabilera.
 - 1.- Iturri-koderako sarbidea (programa, patroia, diseinua, metodologia, eskuliburua).
 - 2.- Aldaketa, hobekuntza, eratorriak eta aplikazio berriak, birnahasketa.
 - 3.- Komunikazio publikoa, banaketa, ustiapena.
- **Permakultura** diseinu-sistema bat da, naturan eta haren prozesuetan oinarritutakoa, honelako printzipio ekologikoak abiapuntu hartuta: Txikitik hastea, behatzea eta elkar eragitea, irudimena modu intentsiboan erabiltzea, arazoa irtenbidea da, gehieneko errendimendua / esfortzu txikiena, biodibertsitatea eta harremanak maximizatzea, funtzionaltasun ugariak, egiturak konektatzea o energia zikloan sartzea. Ildo horri jarraikiz, **8 arau** hauen ereduari jarraitu diezaiokegu: Birbalioztatu (balioak ordeztu), Birkontzeptualizatu (ideiei eta ikuspuntuei buelta eman), Berregituratu (ekoizpen-aparatu eta harreman sozialak egokitu), Birkokatu (0 kilometroaren filosofia), Birbanatu (banaketa justuago bat), Murriztu (gutxiago gehiago da), Berrerabili eta Birziklatu (gauzen bitzta luzatu).
- **Open Space metodologia** oinarritzko lau printzipioren inguruan egituratzen da: 1.- Gertatu beharrekoa gertatuko da, 2.- Hastean hasteko ordua da, 3.- Amaitu denean amaitu da, 4.- Agertzen den jendea jende egokia da. Lege bakarra dago, gainera: 'Bi oinen legea': Uneren batean aspertzen bazara, ikasten edo laguntzen ari ez zarela sentitzen baduzu, erabili zure bi oinak eta aldatu taldea.



Gertuen duen errealitatearekiko konexioa

Lehen ere dokumentu honetan adierazi denez, EKONOPOLOa da AUZOKIZUNA 2020ren esparruan sortutako proiektu bat. Lehentasunezko helburuen artean dago Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako auzoak osorik hobetzea, tokiko giza garapenari eta kohesio soziokomunitarioari eta sozioekonomikoari dagokionez.

Horretarako, EKONOPOLOak testuinguru gertukoena egiten du harremana eta eragina sortzen du, ESSren logikatik honako hauetan eraginda:

- **Egoera zaurgarrietan daudenen** errealitateei egokitutako aukerak identifikatzea, artatzea eta eskaintzea, enpleguari, lanari edo bizitza aktiboari lotuak.
- Harremanak sortzea auzo horietan dagoeneko **inklusioarekin, enpleguarekin, ekintzaitzazarekin, ekintza kulturalarekin edo komunitatearen garapenarekin** lotuta lan egiten duten eragileekin. Eragile berriekekin lan egitea, proiektu jakin batzuetan izandako inplikaziotik abiatuta.
- **Auzo mailan merkataritza- eta enpresa-sare baten ahal bezain dibertsifikatu eta kualitatibo baten** garapenari eta dinamizazioari arreta jartzea, enpresa- eta komunitate-dimentsioaren arteko harreman konprometitua bilatuta.
- **Komunitateko ekonomia nahitaez merkantilizatu edo monetizatu gabearen** proiektuak indartzea, adibidez: denbora-bankuak, truke-sistemak, elkarren laguntzarako eta zaintzarako sareak, txanpon osagarriak, autofinantzatutako komunitateak, kontsumo-taldeak edo komunitateko baratzeak.

Hori jorratzeko modu integral bat, ingurumenaren jasangarritasun-ikuspegia ere hartzen duena, izango litzateke **trantsizio-auzo** ideiatik lan egitea, modu koordinatuan, helburu hauekin: kanpoko energia-mendekotasuna murriztea, auzoko erresilientzia handitzea eta elkarren mendeko harreman kooperatiboen sareak sortzea, pertsonen eta planetaren arteko errespetuan oinarritutako paradigma baterantz igarotzeko.

Trantsizio-auzo horien inguruko aukeren inguruan gehiago jakiteko, HARROBtik HARROBIra txostenaren azken eranskina kontsultatu daiteke; bertan aurkezten zituen trantsizio-ekimenak eta haren aukerak, ildo posible bat edo abian jartzeko modu bat planteatzen zuen, eta estatuko eta Europako adibide nabarmenenak aurkezten zituen. https://www.colaborabora.org/wp-content/uploads/sites/7/2016/07/Anexo6_-Informe_HARROBIAenTRANSICION.pdf



6. Non dago EKONOPOLOa?

6.1. Harrobi plazaren inguruan

EKONOPOLOari oraindik ez zaio kokapen finkorik esleitu, eta eredu-proposamenetik gehiago ari da diseinatzen aurrez zehaztutako muga edo baldintzatzaile batzuetatik baino.

Baina, printzipioz, aukera handiago **EKONOPOLOa Harrobi plazan kokatzeko, San Frantzisko auzoko inguru bizienetako batean**. Azken urteetan aldaketa handia jasan du hirigintzari dagokionez, jorratu beharreko gaiekin lotura zuzena duten bizilagun ugari hartu ditu, eta gaur egun hainbat aukerarako espazio ditu. Ildo horretan, EKONOPOLOaren aurrekaria *HARROBitik HARROBIra* analisi- eta proposamen-proiektua da; 2015ean garatu zen, Harrobi plazan, gizarte-berrikuntzarako eta garapen komunitariorako *living lab* gisa, eta hor jadanik aipatu zen plazaren esparruan ekonomia sozialerako erakargarri bat aktibatzeke aukera.

HARROBitik HARROBIra txostena (2015).
<https://www.colaborabora.org/2016/07/07/harrobitik-harrobira/>



6.2. Aukerarako espazioak

Aurreko puntuan esan dugun moduan, **EKONOPOLOak ez du aurrez definitutako espazio garbirik, proiektua handik garatzeko**. Gainera, dauden aukerarako espazioak ez dute nortasun bereizgarririk, eta espazio anbigua, banatua eta konplexua dute beren ezaugarriari, distribuzioari, egoerari eta eskuragarritasunari dagokionez. Horrek guztiak zaildu egiten du poloa osotasun-ikuspegitik diseinatzea.

Faktore horiek kontuan hartuta, jarraian alboz albo dauden bi eraikinen eta haien solairuen aukeren eta proposamenen analisi txiki bat aurkeztu da. Hainbat espazio irregular dituzte, ezaugarri ezberdinak dituztenak, eta, osorik, gehienez ere 2.500 metro koadroko azalera dute, guztira.

> Hi!

Harrobi plazako 4 zenbakian kokatutako Harrobia eraikinaren sei solairutik lau udal jabetzakoak dira (horietako hiru egun Novia Salcedo fundazioari lagata daude). Guztira 586 metro koadroko azalera eskuragarria dute. Eraikin horretatik izango litzateke errazen EKONOPOLOa mailaka abiaraztea, egokitzeko beharra txikia baita (ikerketa bat egin beharko litzateke balizko akatsak hautemateko -adibidez, hezetasun handiak beheko eta lehen solairuetan).

- Kaleko mailan 68 metro koadroko erabilera anitzeko espazio bat du, erakusleihoarekin (45 metro koadroko aretoa, eta 23 korridorea eta komunak). **ESSren ekosistemarako ate ireki bihurtu liteke.** Espazio erakargarria eta didaktikoa, eta aldi berean balio duena lurraldea eta bertako eragileak eta dinamikak, sortzen ari diren aukerak, hainbat esparruren arteko harremanak eta abar behatzeko, haien mapa egiteko eta aztertzeko. Proiektuak eta ideiak igortzeko eta jasotzeko antena bat, ekimenak sortzea eta konektatzea erraztuko duena. Lan-tresna bizia (fisikoa eta digitala), autosorkuntzako eta prozesuala, erraz aldatu daitekeena.
- Lehen solairuak 100 metro koadro eta komun txiki bat ditu. **Espazio ireki moduan eta erabilera anitzeko moduan** balio ahal izango luke, edozein motatako jarduerak garatzeko (prestakuntza, tailerrak, topaketak, bilerak eta abar).
- Bigarren solairuak 162 metro koadroko areto bat dauka (bi zoru maila dituen, 85 eta 77 metro koadrokoak), eta Kontzezio kalerako irteera independente bat, korridore-gune bat, komuna eta biltegia ere bai (209 metro koadro, guztira). **Coworking motako lan-gunea izan liteke, eta bertan honako hau legoke: EKONOPOLOaren kudeaketa-taldearen nukleo nagusia + entitate publiko eta pribatuetara eta sare bultzatzaileei lotutako pertsonak, edo poloaren eskaintzara lotuago dagoen zerbitzua ematen dutenak.** Espazioaren konfigurazioaren arabera, 20 pertsona inguru egon litezke bertan, eta postu finkoak eta erabilera partzialekoak egon litezke. Beste aukera bat da, solairuen gainerako erabileren arabera, bi mailetako bat bihurtzea lan- eta bilera-areto baterako edo batzuetarako eraldatzea.
- Laugarren solairuak (hirugarrena ikastolarena da, eta hark erabiltzen du) hiru espazio ireki ditu, 75, 64 eta 44 metro koadrokoak + sarrerako 26 metro koadro (209 metro koadro, guztira). EKONOPOLOaren abiarazpenaren lehen fasean eragileek egindako eskariaren arabera, areto horiek hainbat funtziotarako erabili litezke: proiektuen haztegi moduan, programa jarraitu zehatzen bat garatzeko (adibidez, ekintzaitzaren ildoan edo enplegu plan bereziren baten ildoan), prestakuntza- eta bilera-gune moduan eta abar.

> Harrobi Auzo Factory

Udal jabetzako eraikina, plazaren 5 zenbakian kokatutakoa, oin irregularreko bost solairukoa; handienak 383 metro koadroko azalera du. Hasieran anbulatorio bat izan zen, hainbat urtez auzoan Bilbao Ekintzaren zerbitzuen egoitza izan zen, eta udal polizia-etxea ere izan zen.

- Beheko eta lehen solairuak, 280 eta 383 metro koadrokoak hurrenez hurren, laster ez ditu poliziak erabiliko, eta aukerarako espazio egokia litzateke plazatik zuzenean sartzeko (printzipioz, espazioak inbertsio garrantzitsu bat beharko luke hura eraberritzeko, baina okupazio trantsiziozkoagoak edo esku-hartze txikiagoa eskatzen dutenak ere pentsatu litezke). **Espazio horrek poloaren alderdi publiko eta irekien hartu ahal izango lituzke, merkatu sozialari eta gizarteari eta komunitetari lotutako beste erabilera batzuei lotutakoak, baita topaketak,**


tailerrak eta antzekoak ere. Espazioak honako hauek izango lituzke: harrergunea, denda txiki bat / *show rooma* / *pop up* + erabilera anitzeko espazio bat edo batzuk + bilera-gela txikiak + *txoko* moduko sukaldea eta barra (espazio horren elementu berezi eta bereizgarri moduan). Erreferentzia ona izan daiteke Iruñean inauguratu berri den Geltoki proiektua.

- Bigarren solairuan, Bilbao Ekintzarekin egindako hitzarmen bati esker, **Wikitoki dago, autokudeatutako elkarlaneko praktiken laborategi bat**; hura modu koherentean txertatu liteke EKONOPOLOan, haren eragile baten moduan. Solairu horrek irteera independente bat du Kontzezio kalera, Hi! eraikinaren bigarren solairuaren altura berean.
- Hirugarren eta laugarren solairuan Bilbao Ekintzaren enpresa-haztegi bat dago, industria kulturei eta sortzaileei lotutako enpresena, gehienbat. Komenigarria litzateke **haztegi hori espezifikoki ESSren enpresetara bideratzea** (horrek trantsizio-prozesu baten bidez egin beharko litzateke, egun instalatutako enpresekiko kontratuak errespetatuta edo haiei komenigarria zaien birkokapen bat planteatuta).
- Eraikin honen parte ez diren arren eta udal jabetzakoak ez badira ere, komeni da kontuan hartzea **Gasteiz kaleko** zenbait lokal huts, gertu daudelako eta hedatzeko espazio natural moduan (horietako batek 600 metro koadro ditu, eraiki gabeko orube baten ondoan). Halaber, pentsatu liteke kale hori oinezkoentzako kale bihurtzea (edo hein batean, behintzat), Harrobi plaza eta Cantalojas kalearekin batera ingurua batzeko.

> Harrobia eraikina

Jabetza pribatua du, eta oraindik aukerarako hainbat espazio ditu, sartzeko oztopo gehiagorekin edo gutxiagorekin:

- EKONOPOLOren garapenaren lehen fase batean **ikastolaren espazioen erabilerarako akordioetara** iritsi liteke, ikastolaren ohiko funtzionamenduaren baldintzapeko eskuragarritasunarekin –asteleheneetik larunbatera irekitzen du, etengabe 8:00etatik 21:00etara–. Harreman-esparru bat eta funtzionamendu-protokolo bat ezarri beharko litzateke erabilera horiek egiazko bihurtzeko.
- Aurreragoko faseren batean, bosgarren solairuko espazio ireki eta argitsu bat (700 metro koadro eskuragarri, gutxi gorabehera, zerbitzuak jarri gabe dituen), eraikinaren bi hegaletarako sarbidea duena (Hi!ren hegaletik ere bai) eta estalkiarekin konektatuta dagoena, aukerarako espazio garrantzitsu bat ere bihur liteke; horrek inbertsio ekonomiko handiagoa eta mobilizazio-gaitasun handiagoa eskatuko luke. Dimentsio horretako espazio batek aukera emango luke **zerbitzu eta dinamika batzuk integartzeko, printzipioz beste espazio edo solairu batzuetan sakabanatuagoak leudekeenak**, bai Hi!renak bai Auzo Factoryrenak. Ideia posible bat litzateke espazio horren zati handi batean **enpresa-ekimenen** haztegi bat sustatzea, unibertsitatearen, lanbide heziketaren, ESSren instituzioen eta entitateen eta gizarte zibileko beste eragile batzuen artean elkarrekin lan egiteko.



Hiru garapen-fase

Poloaz beta proiektu moduan hitz egin dugun bezala, eginaz egituratzen doan proiektu baten moduan, espazioarekin ere antzeko zerbait gertatzen zaigu. Poloan hainbat espazio-egoeratan oinarrituta planteatu da, eta espazio horiek aldi berean espazio-eskuragarritasuneko hainbat egoerarekin zerikusia dute, honako alderdien arabera: jabetza, denboraren eskuragarritasuna, egokitzeko beharrezko inbertsioa, jarduera-maila jakin bat garatzeko mota guztietako baliabideei dagokien gaitasuna, ezarri beharreko akordioak edo poloari lotuta inplikaturako eta mobilizatutako eragileen mota eta kopurua.

Horretan oinarrituta fasetan heltzea proposatu da, hainbat faktoreren garapenaren arabera doitu ahal izango direnak.

- **1. FASEA:** EKONOPOLO abian jartzea Hi! eraikinean + oraingo Auzo Factoryren proiektuan integratzea (bi eraikinen konexio fisiko posiblearekin –beharrezkoa da bideragarritasuna eta esku hartzeko moduak ikertzea konexio horretarako–) + ikastolako espazioak itun baten bidez erabiltzeko aukera.
- **2. FASEA:** Merkatu sozialari lotuen dauden espazioak eta beste erabilera ugari eta sozialak sartzeko gaur egun polizia-etxeak hartzen duen espazioan.
- **3. FASEA:** Harrobia eraikinaren bosgarren solairua gehitzea (eta estalkiaren erabilera posibleak).



Espazioen ezaugarrien inguruan pentsatzeko zenbait gako

- **Erosoa** > Bertan egoteko goga ematen duen leku bat. Erosoa, epela, erakargarria, funtzionala, behar bezala ekipatua.
- **Erabilera konbinatuak baina bereiziak**> Gune espezifikoak (erabileren araberakoak) + erabilera mistoen guneak + gurutzatze- edo trantsizio-guneak (eskailerak, korridoreak, *officea*, gune komunak, komunak, biltegiak eta abar). Espazio irekien eta itxien konbinaketa + behin-behineko itxitura-elementu, espazioak isolatu gabe banatuko dituen.
- **Askotariko funtzionaltasunak**> Lan-gune finkoak sareentzat eta enpresentzat edo erreferentziazko eragileentzat + *coworking*a eta proiektu berrietarako, kooperatiba txikientzako eta abarretarako bulegoak, + bilera-gelak eta 'isiltasun-espazioak' + espazio irekiak, erabilera ugariak, komunean erabiltzeko prestakuntzako, dibulgazioko elkarlaneko eta abarreko jardueretarako + *cornerak* edo dedikatutako iskinak.
- **Hondoa duen forma**> Funtzionalitateagatik eta estetikagatik ESSren balioak eta egiteko moduak transmitituko dituzten ezaugarriak izango ditu (irisgarritasuna, jasangarritasuna, zaintza, irekitasuna) eta pertsonalitate propio bat izango du, erabilerarekin hartuko duena. Ahal den neurrian aurretik zegoenaren oroimena edo esentzia gordeko du eta berreskuratutako materialak, material ekologikoak eta/edo egiaztatuak erabiltzea sustatuko du.
- **Neurrira eta zentzuz**> Kodiseinuko eta diseinu irekiko prozesu baten emaitza izango dira altzariak, 0 kilometroko logikatik modu espezifikoan ekoiztiak.

ESSren unitate mugikorra


EKONOPOLOa, Harrobi plazan dituen espazioetatik harago, sakabanatutako **antena, konektore eta biderkagailu moduan aritzen diren nodo-sare** baten moduan ulertu behar da. Hori egiteko funtsezko modu bat da harremanak sortzea beste auzo batzuetako eta probintzia osoko espazioekin eta proiektuekin. Beste modu osagarri bat da lurraldean mugitzeko nodo mugikor bat izatea, behintzat, beste espazio batzuetara eramateko, kalera ateratzeko, herritarrekin elkarri eragiteko, eragileak identifikatzeko eta ideiak, erronkak beharrak eta abar jasotzeko. Unitate mugikor bat, bere burua aski duena eta mugitzen erraza. Polo batean pentsatzen ari garela, erreferentzia on bat izan daiteke "izozkien orgatxo".

Erreferentziako hiru espazio

Azken urteetan geroz eta espazio gehiago ari dira sortzen poloaren, *hub*aren, berritze-laboretegiaren, *coworking*aren ideiarekin.

Orain, estatuko hiru proiekturen adibideetara inguratuko gara, ESSrekin zuzenago lotuta daudenetara.


> Coòpolis (Bartzelona)



Can Batlló auzo-proiektuaren barruko nabe zahar batean kokatutako espazioa da. Elkarlanerako eta tokiko ekonomia-hazkunderako laborategi bat da; kooperatiba berrientzako eta ESSri lotutako proiektuentzako inkubagailu bat; jarduera sozioekonomikoaren eta prestakuntzakoaren ekosistema bat. Coòpolis ekimen sozialeko proiektu bat da, Ateneus Cooperatius de Catalunya sarearen parte dena, eta Barcelona Activaren babesa du.

<https://bcn.coop>


> Las Naves (Valentzia)



Zentro berri bat da, pertsonetan oinarritutako berrikuntzan eta ekonomia sozialean lanean dabilena eta arreta bost sektore estrategikotan jartzen duena: Mugikortasuna, energia eta ura, nekazaritzatik datorren elikadura, osasuna eta hiri osasungarria eta industria kulturala eta sormenezkoa. Valentziako Udalak sustatutako espazio bat, “lau helizeak” izeneko eragileen inplikazio aktiboa duena: sektore publikoa, sektore pribatua, sektore akademikoa/ikerkuntzako eta gizarte zibila.

<https://www.lasnaves.com>

> MARES (Madril)



MARES Madrid proiektuaren helburua hiria ESSren bitartez eraldatzea da. Haren asmoa da ekimen produktiboak sustatzea auzo kooperatiboaren ideiatik, bost sektoretan (itsasoak) lan eginda: mugikortasuna, elikadura, birziklapena, energia eta zaintza. Itsaso bakoitza barruti bateko erabiltzen ez den eraikin batean dago, proiektuaren esparruan birgaitutako batean. Eraikin horiek inkubagailu lanak egiten dituzte, jardueren praktikarako eta garapenerako komunitateen topagune moduan. Proiektua Madrilgo Udalak eta ESSren eragileek elkarrekin garatu dute, Europako Batzordeko Urban Innovative Actions programaren bitartez finantzatuta.

<https://maresmadrid.es>



7. Nork osatzen du EKONOPOLOa?

ESSko ekosistema hedatzen ari da etengabe. ESS osatu izan duten eragileetatik hasita, komunitatea handitzen ari da, dibertsifikatzen ari da, eta eragileen eta intereseko taldeen tipologia berriak sortzen ari dira.

EKONOPOLOa topagune bat eta harremanetarako (formaletarako eta informaletarako) leku bat izan behar da, ESSren inguruko komunitate ireki eta inklusiboa osatzen duten eragile guztientzat. Behar, interes eta sentsibilitate ezberdinetako eragileak elkarbizitzan egoteko leku bat, aukera berriak sortuko dituzten elkarlana, transferentziak eta hibridazioak gertatzeko toki bat. Proiektu bat hasi dutenen, hazkunde- edo finkatze-fasean daudenen, entitate sustatzaile edo laguntzaileetakoena, lana bilatzen ari direnen, ekimen herrikoi bateko parte-hartzaileen, ikasleen edo lekua aurkitu eta jakin-mina dutenen arteko bidegurutze bat. Espazio bat, **publikoa, pribatua eta komunitatekoa denaren arteko erantzunkidetasun-harreman hori, hainbeste aipatzen dena baina bateratzen horren zaila dena** egia bihurtzeko.

Gainera, eragileez hitz egitean, gehienetan taldeez edo erakundeez modu generikoan ari bagara ere, funtsezkoa da adieraztea azken finean modu aktiboan parte-hartzen dutenak PERTSONAK direla (beraien izenean edo norbaiten ordeko gisa arituta), eta pertsona horiek egongo dira EKONOPOLOan, haiek emango diote bizitza, izaera jakin bat eta dinamismoa.

Honako taula honetan jaso dira, labur-labur, izen zehatzik eman gabe, EKONOPOLOaren komunitatea osatuko luketen eragileak, haien tipologiaren eta funtzioaren arabera ordenatuta, poloaren esparruan bilatu eta eskaini zezaketenari jarraituz.

EKONOPOLOko komunitatea	
Eragileen tipologia	Zeregina
<p>Sustatzaileak. Erakunde publikoak, ESSren garapenean eskumenak dituztenak, baita ESS ordezkatzan duten eragile pribatuak ere, hura orokorrean bultzatzeko konpromisoa dutenak.</p>	<p>Zer bilatzen dute > ESSren ekosistema handituta eta dibertsifikatuta garatzea, maila sozioekonomikoko esparru estrategiko gisa.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Hainbat motatako baliabideak (ekonomikoak, azpiegiturak, langileak eta abar). Konpromisoa eta lidergoa ESSrekin lotutako esparru politikoak, ekonomikoak eta sozialak elkarrekin garatzean.</p>
<p>Erakartzaile / bultzatzaileak. ESSren esparruko sareak, erreferentziazko enpresak eta beste erakunde batzuk.</p>	<p>Zer bilatzen dute > ESS indartzea eta garatzea, hor dauden erronei eta aukerei utsita, geroz eta eragile gehiago erakartzen. Eragin politikoa eta soziala areagotzea.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Inplikazioa eta bultzada ESSren garapenean, oro har, eta EKONOPOLOaren garapenean, zehazki. Harreman artikulatuak, abian dauden proiektuak eta erreferentziazko jardunbide egokiak. ESSrako tresna, programa eta zerbitzu espezifikoak. Elkarlana eta laguntza eta ESSren berezko tresnak, hala nola auditoretza soziala, erosketa publiko arduratsua edo merkatu soziala.</p>
<p>Askotariko profiletako erabiltzaileak, EKONOPOLOaren komunitatearen gehiengoa izan beharko liratekeenak: ekintzaileak, langabeak, bizilagunak, zaurgarritasun handiagoko egoeran dauden pertsonak, ikasleak, aktibistak, ikertzaileak eta intereseko beste talde batzuk.</p>	<p>Zer bilatzen dute > Hainbat behar asetzea ESSren bitartez: prestakuntza-baliabideak, enplegua bilatzea edo ekimen baten garapenerako laguntza; ESSren eta merkatu sozialaren ezagutza eta sarbidea; komunitateko bizitzan edo EKONOPOLOan garatutako proiektu jakinetan inplikatze moduak.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Berezko ekimenaren potentzia, beharra, desira, esperientzia eta/edo inplikazioa, ESSri lotutako eraldaketa motor gisa.</p>
<p>Eragile publikoak, polotik garatu beharreko eskumen eta funtzioekin.</p>	<p>Zer bilatzen dute > Beren garapen ekonomiko eta sozialaren politikoetan ESSrena bezalako eredu bat txertatzea, jasangarriagoa eta sozialki arduratsuagoa.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Esparru politikoak eta arauzkoak. Programak eta jarduerak garatzeko baliabideak. ESS beren programetan txertatzea. ESS gehiago sozializatzen laguntzea erakundeen barruan eta gizarte osoan.</p>
<p>Eragile pribatuak, poloaren lan-esparruarekin eta eskaintzarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituztenak.</p>	<p>Zer bilatzen dute > Erreferentziazko esparru egoki bat, beren balio-eskaintza eta zerbitzuak hobeto hautemateko, eta modu eraginkorragoan konektatzeko beren intereseko taldeekin. Elkarrekiko kooperazioa hobetzea.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Programak, tresnak eta metodologiak, jarduerak eta EKONOPOLOaren jarduerarekin lotutako beste zerbitzu batzuk.</p>

<p>Tokiko eragileak, ESSren esparruko jarduera esparru berrien edo estrategikoen enpresa ordezkari moduan, sindikatuak, elkarteak eta sektoreko sareak edo sare tematikoak, merkataritza ganberak, profesionalen elkargoak, erakunde sozialak, herri-ekimenak, eragile informalak eta abar.</p>	<p>Zer bilatzen dute > Erreferentziazko esparru bat eta ikusgarritasuna ESSren eta haren ekosistemaren inguruan. Topagune bat, elkar ezagutzea eta elkarlan posiblea, interes eta erronka partekatuei eta proiektu berriak garatzeari lotuta. Jakintzarako, tresnetarako eta jardunbide egokietarako sarbidea.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Beren gaitasunak, baliabideak eta harremanak, lan-ildo eta/edo proiektu edo jarduera jakinei lotutakoak.</p>
<p>Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako testuinguruko eragileak, beren jarduera ESSri eta komunitateko ekonomiari lotuta dutena.</p>	<p>Zer bilatzen dute > Erreferentziazko proiektu bat eta espazio bat, auzotik eta auzoan, jarduerari aukera emateko eta hura errazteko. Estrategia bateratua eta artikulazio hobea proiektuak egin ahal izateko modu kualitatiboagoan eta auzoan gehiago eraginda, haren erronka eta behar espezifikoak dagokienez. Eragileen beraien arteko kooperazioa hobetzea, erakunde mailan eta herritarrekin. <i>Trantsizio-auzoaren</i> ekimen batekin bat egitea.</p> <p>Zer eskaintzen dute > Tokiko testuinguruarekin konpromisoa duten entitateak eta pertsonak, ekonomia solidario eta komunitarioaren forma dutenak. Jakintza eta esperientzia hainbat jarduera-arlotan. Abian dauden proiektuak, eta, askotan, ibilbide luzea dutenak.</p>
<p>Finantzazioari, inbertsioari eta baliabideak sortu eta mobilizatzeari lotutako eragileak.</p>	<p>Zer bilatzen dute > ESSren berezko finantzazio-tresnak eta -baliabideak ezagutaraztea eta haien erabilera zabaltzea.. Finantzaketa eta inbertsioa behar duten ekimenak identifikatzea. Berrikuntza finantza etikoei lotutako produktuetan eta zerbitzuetan.</p> <p>Zer eskaintzen dute > ESSren ekosistemaren garapen jasangarri eta bideragarriarekiko konpromisoa. Finantza-tresnak eta -baliabideak. Inbertsio- eta finantzazio-alorreko aholkularitza eta laguntza.</p>
<p>Hezkuntza-sistemaren eta sistema zientifiko eta teknologikoaren eragileak, ESSren inguruko lan-ildo espezifikoak dituztenak.</p>	<p>Zer bilatzen dute > ESS bezala hazten ari den esparru estrategiko baten esparruan kokatutako jakintzarako eta esperientzietarako sarbidea eta haiekiko harreman gertukoagoa.. Jakintza garatzeko eta berritzeko esparru berri bat, bertan jarduketa modu aplikatu batean orientatu ahal izateko.</p> <p>Zer eskaintzen dute > ESSren inguruko sentsibilizazio-, prestakuntza- eta berrikuntza-inguru espezifikoak. ESS hezkuntza-curriculumean txertatzea modu espezifikoan eta/edo transbertsanean. ESStik behar diren askotariko profilak sortzea. Proiektu zehatzen inguruko ikerketa, azterketa, berrikuntza eta/edo sistematizazioa. Esparru akademikotik eta zientifiko eta teknologikotik zilegiztatzea.</p>

Eragile batzuk hainbat tipologiatan egon daitezke.



8. Nola funtzionatzen du EKONOPOLOak?

8.1. Gobernamendu-eredu banatu eta erantzunkidea

> Zer esan nahi dugu *gobernamendu* hitzarekin?


Gobernamendua da gobernatzeko artea edo modua, eta haren helburua da komunitate bat edo erakunde bat modu egokian garatzea. **Gobernamenduak bilatzen du erakundeek funtzionatzea modu eraginkorren, egokitzailen eta iraunkorren, aukera eman dezan erabakiak hartzeko eta komunitatea kontrolatzeko, zuzentzeko eta administratzeko. Hori egiten du komunitate hori osatzen duten sektore publiko, pribatu edo zibileko eragileen hainbat mailaren arteko ekintza eta kooperazioa oinarri hartuta.** Antolakuntza-modu bat ez da oinarritzen hainbat alderdiren azpiratze hierarkikoan, baizik eta haiek sarean txertatzean eta arautzean.

> Banatua eta erantzunkidea?

EKONOPOLOaren ezaugarriak dituen proiektu batek behar du **governamendu-eredu banatua eta erantzunkidea, lidergo partekatuak baina garbiak dituen; hainbat inplikazio-mota eta -mailatarako aukera emango duena.**

Burokratizatu gabeko eredu bat, funtzionala eta arina, eginaren bidez arautzeari lehentasuna emango diona, helburuka lan eginda, lan-ildo edo proiektu jakinetatik. **Eredu bat, prozesuei eta haiek aurrera eramaten dituztenei autonomia emango diona** (talde eta helburu komunitatik aldendu gabe, aurrez ezarritako erreferentziazko akordioetatik eta esparruetatik abiatuta), harreman kohesionatuak, konfiantzazkoak, aitorpenezkoak eta elkarrekotasunezkoak. Eredu bat, eragile bakoitzak banaka duen izaera errespetatuko (antolaketa-moduei, helburuei, ohiturei, kulturei eta abarri dagokienez) eta proiektu komunaren inguruan modu kolektiboan eraginkortasunez bat etorraziko dituen.

Dokumentu honetan eredu bat proposatzen da, hainbat inplikazio-maila dituzten hainbat motatako eragilek osatutako organismo konplexu baten kudeaketari eta asmo handiko jarduketa-plan baten koordinazioari eta garapenari heldu nahi diona. **Proposatutako eredua egokitu eta modulatu egin beharko da EKONOPOLOak azkenean izango dituen tamainaren eta konplexutasun-mailaren arabera, eta hura fase bakoitzean garatzen den eta zabalitzen den moduaren arabera.**



Erakundeen zerbitzuen kooperatiba

EKONOPOLOa bezalako proiektu berritzaile eta eraldatzaile bat hala izan behar da alderdi guztietan, baita formaletan ere. Horrela, hainbat izaeratako eragileak biltzeko nahikoa litzatekeen arren elkarrekin bezalako forma juridiko moldakor bat, beste aukera bat da erakundeen zerbitzuen kooperatiba: oso gutxi zabaldu den forma bat, eta hasieran konplexuagoa izan daitekeen arren, hobeto egokitzen dena EKONOPOLOaren izaerara eta oinarri juridiko sendoagoa ematen diona, haren helburuei gehiago moldatzen zaiena. **Forma juridiko horien aldeko apustuak ekarriko luke**

poloari elementu bat gehitzea, berritzailea eta bereizgarria, esparru publiko, pribatu eta zibilen arteko gobernamentu partekatuko etorkizuneko proiektu askorentzat erreferentzia izan daitekeena.

Instituzio zerbitzuetako kooperatiba egungo Kooperatiben Euskal Legearen 125. artikuluan dago jasota, honela: Batzak, herri-erakundeak, iraskundeak, sindikatuak eta bestelako elkarteak dira mota honetako kooperatibak era ditzaketenak; kooperatiba horien bidez, denen berdintasunean eta kide bakoitzaren burujabetasuna eta erakunde lez dituen ezaugarriak ukitu gabe, edozein arazo edo antolamendu edo jarduneko beharizani irtenbidea eman daskioke.

Forma juridiko hori egokia da publikoaren eta pribatuaren arteko garapenerako lankidetzaren proiektuetarako, EKONOPOLOaren modukoetarako; bertan, **oso garrantzitsua da hainbat erakunde publiko inplikatzeko zerbitzuak bultzatzean, garatzean eta eskaintzean, zuzenean eta modu erantzunkidean hainbat izaeratako eragileekin elkarrekintzan.** Proiektu bat, hasierako Bilbao Ekintzaren bultzadarekin hasieratik lortuko duena honako instituzio hauek barruan hartzea, adibidez: Bizkaiko Foru Aldundia eta egungo Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (eta BEAZ edo DEMAren moduko enpresa publikoak; eta Eusko Jauriaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketarako Sailarekin, eta Ekonomia Sozialaren zuzendaritzarekin, baita Lanbiderekin ere.

1993ko Kooperatiben Euskal Legea (egun beste lege bat ari da idazten, aurreproiektu-fasean dagoena) <https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-2011-consolidado.pdf>

EKONOPOLOaren bazkide motak

EKONOPOLOaren komunitatea hainbat bazkide motak osatuko dute. Pertsona fisikoek eta juridikoek, hainbat konpromiso, erantzukizun eta eskubide hartuko dituztenak proiektuari, haren garapenari, kudeaketari eta hura mantentzeari lotuta. Bazkide guztien sinatu beharko dute EKONOPOLOaren kode etikoa.

Bultzatzaileak

- Sustatzaileak, erakartzaile / bultzatzaileak eta EKONOPOLOan inplikazio-maila handia duten beste eragile publikoak eta pribatuak. Haien arteak egongo dira bazkide fundatzaileak (fundatzailetzat joko dira EKONOPOLOa eratu eta bi urteraino sartzen diren entitateak).
- EKONOPOLOaren gobernu-organo eta erabakigune guztietan hartu ahal izango dute parte maila estrategikoan, kudeaketakoan eta eragilean. Zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte eta iragarkiak egin ahal izango dituzte horretarako gaitutako barruko edo kanpoko bitartekoen bidez. Horrez gain, lehentasunezko partaidetzarako sarbidea izango dute antolatutako jardueretan (aurreinskripzioa, deskontua eta abar), eta informazio espezializatua jasoko dute EKONOPOLOaren lan-esparruekin lotuta.

- Kuotak: Plantillaren tamainaren arabera: 1.000 euro (15 langilera arte) eta 2.000 euro (15 langiletik gora). Horrek ez ditu kanpoan utziko EKONOPOLOarekin hainbat helburutarako ezarritako beste hitzarmen-, lizitazio- edo ekarpenak.

Produserrak

- EKONOPOLOaren erabiltzaileak, ekoizleak eta hornitzaileak. Komunitatearen gehiengoa dira, proiektuari zentzua ematen diotenak.
- EKONOPOLOaren bizitzan parte hartu dezakete erantzunkidetasunez, eta modu iraunkorrean edo noizean behinekoan inplikatu daitezke bertako eztabaidetan, jardueretan eta proiektuetan. Urteko osoko bilkuretan eta lan-taldeetan ere parte hartu dezakete, baita EKONOPOLOaren gobernu-organoeetan eta erabakiguneetan ere, maila operatiboan (edo maila estrategikoaren eta kudeaketakoaren lotura moduan). Horrez gain, lehentasunezko partaidetzarako sarbidea izango dute antolatutako jardueretan (aurreinskripzioa, deskontua eta abar), eta informazio espezializatua jasoko dute EKONOPOLOaren lan-esparruekin lotuta.
- Kuotak: Plantillaren tamainaren arabera: 100 euro (0-3 langile), 200 euro (4-15 langile), 350 euro (16-50 langile) eta 500 euro (50 langiletik gora).

Babesleak

- Proiektuarekin bat datozenak eta beren borondatezko ekarpen ekonomikoarekin EKONOPOLOa mantentzen laguntzen dutenak.
- Urteko osoko bilkuretan eta lan-taldeetan parte hartu dezakete. Horrez gain, lehentasunezko partaidetzarako sarbidea izango dute antolatutako jardueretan (aurreinskripzioa, deskontua eta abar), eta informazio espezializatua jasoko dute EKONOPOLOaren lan-esparruekin lotuta.
- Kuota: 1.000 eurotik aurrera.

Ohorezkoak

- ESSren arloan aitortpena duten pertsonak, EKONOPOLOaren lana babesten dutenak, baina eskubiderik eta betebeharririk ez dutenak.



Soziokraziatik ikasten


Soziokrazia antolatzeko modu bat da, haren ezaugarriak eta dimentsio kontuan hartuta, EKONOPOLoa bezalako proiektu bati oso ondo egokitu dakiokena (hasieratik, edo jomuga moduan jartzeko eredu moduan). Haren helburu nagusia da komunitatea osatzen dutenen parte-hartzea eta erantzunkidetasuna sustatzea, adimen kolektibo bat garatzeko. Hobeto funtzionatzen du kideak lotura indartsu batek lotzen dituenean, koherentzia eta zuzendaritza ematen duen batek.

Soziokraziaren oinarria da egitura burokratikoak arintzea eta funtzionatzeko lau oinarrizko tresna artikulatzea:

1. **Zirkulua gai zehatzak ebazteko unitate-talde moduan** (autonomia handia, berezko egitura eta funtzionatzeko modua). Zirkulua hiru dimentsiotan: Koordinazio estrategikoa / Kudeaketa / Operatiboa.
2. **Erabakiak adostasunez hartzea** (adostasuna dago inork ez duenean eragozpen garrantzitsu eta arrazoizkorik –halakorik badago, taldean landu behar da, eta tolerantzia-printzipioarekin ere egiten da lan, edozein kasutan ere aurrera egiten utziko duenarekin–).
3. **Lotura bikoitza antolakuntzaren mailen artean** gardentasuna eta informazio-fluxua bermatzeko (pertsonek bat aukeratzen da koordinaziotik eta beste bat zirkulutik bertatik).
4. **Deklaratutako hautagairik gabeko hautaketa zeregin bat delegatzeko** (kide bakoitzak egokien irizitako pertsona proposatzen du, eta gehiengoak aukeratutakoa da adostasunez hautatutakoa).

Soziokraziari eta antzeko ereduak buruz (holokrazia, esaterako):

<https://sociocracia.net> | <http://elcaminodelelder.org/resources/Holocracia-V1.pdf>



8.2. Antolatzeko modu soziokratikoa

EKONOPOLOaren antolakuntza sortzen da komunitate artikulatu bat osatuta, jorratu beharreko bost esparruak identifikatuta (zertarako / barrua / kanpoak / proiektuak / intendentzia), hiru eskumen-dimentsiotatik (estrategikoa / kudeaketa / operatiboa). Elkarrekiko mendetasunez osatu eta atzeraelikatu beharreko esparruak eta dimentsioak.

> Komunitate artikulatu bat

Komunitatea da EKONOPOLOaren oinarria. Hura existitzeak, artikulatzeak eta hazteak, eta haren helburua garatzeak zentzua ematen dio poloari berari. Sare ireki batek osatzen du, poloaren inguruan mugitzen diren eta nolabait hark interpelatuta edo hari lotuta sentitzen diren eragile guztiek osatutakoa –bazkide formalak izan ala ez–.

Komunitatea modu formaletan eta informaletan artikulatzen da, eta modu horietan da EKONOPOLOren partaide, eta haren helburuen artean daude komunitatea bera handitzea eta haren kideak dibertsifikatzea. Horretarako, beharrezkoa da etengabe

komunitatean dabilen energia orekatzea-berraktibatzea-berritzea. Hasten ari direnek ezagutzeko, egiteko eta nahasteko motibazio handiagoa, denbora gehiago, gogo handiagoak eta behar handiagoak dituzte. Denbora gehiago eman dutenek jakintza, esperientzia, harreman eta aurreikuspen-gaitasun handiagoak dituzte. Garrantzitsuena da elkar atzeraelikatzen duten bi energiak konbinatzea.

Komunitatearen biltzeko eta ordezkatzeko modua urteko bi osoko *bilkurak* dira. Osoko bilkuretako bat informatiboagoa izango da, eta EKONOPOLOaren ohiko batzarra hartuko du barruan; bigarrena, berriz hausnarketan eta proposamenetan oinarrituagoa izango da.

> Heltzeko bost esparru

1. **Heldu zertarako horri**

EKONOPOLOaren ikuspegia eta misioa zaintzea. Plan estrategikoa definitzea, jarraipena egitea, egokitzea eta ebaluatzea. Koordinazio orokorra. Eskumenen dimentsioetako erabakietan laguntzea. Proiektuen jarraipena egitea. Eragile sustatzaileekiko, haien arteko eta beste *stakeholder* batzuekiko lotura. Proiektuak, finantzazio-aukerak eta merkatuak bilatzea. Erakundeetako ordezkariak.

2. **Heldu barruari**

Komunitatea zaintzea. Harrera. Prozesuen arreta. Prozedurak eta protokoloak etengabe egokitzea. Espazioa zaintzea. Barruko komunikazioa eta barruko istorioak. Konfiantza-baldintzak sortzea eta komunitatea osatzen duten komunitateen arteko kohesioa mantentzea. Bide ematea inplikaturako eragileen beharrei. Barruko potentziak eta ezkutuko konexioak hautematea. Eragileen arteko elkartrukea eta elkarlana sustatzea. Mugarriak ospatzea.

3. **Heldu kanpoei**

Beste ekimen eta joerak behatzea, mapa egitea eta konektatzea. Sarearen irekiera, hedadura eta artikulazioa bermatzea. EKONOPOLOa ikusaraztea. Harremanak eta aliantzak sortzea. Komunikazioa eta kontakizuna.

4. **Heldu proiektuei**

Proiektuei, lan-taldeei, ildoei eta abarri begiratzea. Lagun egitea, monitorizatzea eta proiektu bakoitzaren kalitatea eta koherentzia zaintzea, haren funtzio jakinaren arabera eta EKONOPOLO osoan duenaren arabera. Ikerketaren eta aplikazioaren arteko oreka bermatzea.

5. **Heldu intendentziari**

Kudeaketa administratiboa, finantzarioa eta legezkoa. Hornitzaileekiko harremana. Aurrekontuak, kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak. Barruko zerbitzuak.

> Hiru eskumen-dimentsio

>> Dimentsio estrategikoa

Koordinazio estrategikoaren dimentsioa lotuta dago planifikazioarekin, kontrolarekin eta erabakiak hartzearekin. Lagundu egiten du EKONOPOLOaren misioa epe ertainean eta luzean ezartzen, misioa betetzeko helburuak eta estrategiak zehazten ditu, balizko aldaketak ebaluatu eta egiten ditu eta abar.

Koordinazio estrategikorako zirkulua

- **Zer:** Estrategikoaren arretaren ardura duen organoa, ikuspegia eta misioari jarraitzea zehazteari eta zaintzeari dagokionez, estrategia finkatu arte eta hari zehaztasunen jarraipena egin arte. Horrez gain, haren barruan dago EKONOPOLOaren ordezkari legala (kooperatiba baten artezkari batzordearen baliokidea).
- **Nor:** 15 pertsonak osatzen dute, gutxi gorabehera, bazkide bultzatzaileetatik eta kudeaketako dimentsioko eta dimentsio operatiboko ordezkarietatik. Ordezkariaren iraupena zehaztu behar da, eta partzialki berritzeko formula posible bat ezarri behar da.
- **Nola:** Lau ekitaldi urtean (urtean behin zirkulu aholkularia gonbidatzen da) + ezohiko saioak. Proposatzen da gutxienez hiru batzorde espezifiko sortzea. 1) Batzorde etikoa, aurretiaz ezarritako kode etiko berrikusgarri batean oinarrituta aritzen dena; 2) Bazkideak eta baliabideak lortzea; eta 3) Ildo transbertsalak zaintzea.

Zirkulu aholkularia

- **Zer:** Aholkularitza-organoa, kanpoko kontrastea, ikuspegiak irekitzea eta abar.
- **Nor:** EKONOPOLOan aktiboki parte hartu ez arren horiek gertu izatea interesgarri irizitako pertsonak, duten ezagutza edo esperientzia dela medio.
- **Nola:** Koordinazio estrategikoko zirkuluarekin egindako urteko topaketa + ezohiko saioak.

>> Kudeaketako dimentsioa

Kudeaketako dimentsioa lotuta dago adostutakoa praktikan jartzea erraztearekin. Lan-ildo zehatzak garatzea; programak, proiektuak eta ekintzak koordinatzea, EKONOPOLOaren komunitatea mantentzea eta irekitzea eta haren jasagarritasunerako baliabideak bilatzea.

Zirkuluak, kudeaketa-esparruen arabera:

- **Zer:** EKONOPOLOak kudeaketa efiziente, eraginkor eta afektiboa duela zaintzea. Egunez eguneko koordinazio estrategikoa mantentzea. Barrua, kanpoak eta intendentziari erreparatzea. Lan-ildoak, proiektuak, programak eta jarduerak diseinatzea, koordinatzea eta haiei laguntzea.

EKONOPOLOAREN GOBERNAMENDU EREDUA

DIMENTSIOA

1. Estrategikoa
2. Kudeaketakoa
3. Operatiboa

ZIRKULUAK


- koordinazio
estrategikoa
- Kudeaketa
zirkuluak
- aplikazio
zirkulua
- lan-taldeak
- komunitateko
osoko bilkura


KUDEAKETA-ARLOAK

- a) Zertarako
- b) Barrua
- c) Kanpoak
- d) Proiektuak
- e) Intendentzia

ERAGILE-MOTAK

- balkideak
- langile
liberatuak
- Koordinatzailea
- △ bitartekariak
- loturak
- ⊗ kanpoko
eragileak





- **Nor:** Bost zirkulu, dedikazio osoko profesionalek osatutako lan-talde liberatu batek osatutakoak, aplikazio-zirkuluko ordezkariekin; haiei batzuetan honako hauek gehituko zaizkie: dimentsio kuantitatiboagatik edo estrategikoagatik garrantzitsuenak edo esanguratsuenak diren lan-taldeen loturak edo kudeaketako zirkuluen funtzioarekin lotuen daudenenak.
- **Nola:** Kudeaketako zirkulu bakoitzak finkatutako funtzio batzuk ditu, eta haietako lan ugari modu osagarrian eta elkarren mendekoan egiten dira. Astean behin koordinazio-bilerak egiten dituzte (txandakatu egiten dira, aste batean zirkulua bera biltzen da, eta hurrengoan bost zirkuluak batera biltzen dira). Lan-talde liberatuak hartzen du bere gain kudeaketa-lanen zama handiena, eta proiektuan dedikazio osoa duten 5-7 pertsonak osatu beharko lukete. Estrategiari erreparatzea (pertsona 1) + barruari erreparatzea (1-2 pertsona) + kanpoei erreparatzea (pertsona 1) + proiektuei erreparatzea (1-2 pertsona) + intendentziari erreparatzea (pertsona 1). EKONOPOLOaren abiatzeko moduaren eta bilakaeraren arabera, talde hori txikiagoa edo handiagoa izan daiteke.

Bestelako gobernu organoak

Kontuan hartuta EKONOPOLOarentzat proposatutako forma juridikoa kooperatiba dela, legeak ezarritako bi organoak sortu behar dira, gutxienez:

- **Esku-hartzea:** EKONOPOLOaren barruko fiskalizazioa du xede, egoki irizitako kontsulten, egiaztapenen eta baieztapenen bitartez, eta urteko kontuen zentsura eta kudeaketaren txostena eginda, ohiko batzarrari hark onartu dezan aurkeztu aurretik.
- **Bermeen batzarra:** Bazkideei ezarritako zehapenen aurkako errekurtsuak izapidetzen eta ebazten ditu.

>> Dimentsio operatiboa

Dimentsio operatiboa praktikoa da batik bat, eta programa, proiektu eta ekintza praktika jarraitu zein puntual gehienak aplikatzearekin lotuta dago.

Aplikazio-zirkulua

- **Zer:** Programak, proiektuak eta ekintzak.
- **Nor:** Egoitza EKONOPOLOan duten entitate bultzatzaileak eta erakartzaile / bultzatzaileek osatutako taldea, baita erreferentziazko beste entitate mota batzuek, zerbitzuak eman ohi dituztenek, ere.
- **Nola:** Modu autonomoan baina elkarren mendekoan egiten dute lan, proiektu jakinen bitartez EKONOPOLOan sinergiak eta elkarlaneko dinamikak modu produktiboan sustatzeko konpromisoarekin. Bi hilean behin bilerak egiten dituzte hainbat entitateren ordezkarien artean, lan-talde liberatuarekin batera.

Lan-taldeak

- **Zer:** Modu operatiboan heltzen diete erronka, proiektu eta zeregin jakinei. Lan-talde batzuk edo beste batzuk sortzea edo mantentzea koordinazio estrategikoko zirkuluan proposatutakoaren arabera izan daiteke, baina

komunitatetik ere sortu daiteke, betiere planifikazio orokorrarekin koherentzia mantenduta.

- **Nor:** Kasu bakoitzean landu beharreko gaiak interesatutako / ukitutako pertsonak osatua. Komeni da taldeak mistoak izatea, gai jakin bakoitzarekin lotutako komunitateko pertsonak, talde operatiboa, langile liberatuak, bitartekariak eta/edo EKONOPOLOtik kanpoko eragileak biltzea.
- **Nola:** Beharrezko iritzitakoa adina talde, komunitateak mantendu baditzake. Iraunkorrak edo behin-behinekoak. Erronkaren izaeraren arabera aldatu daitekeen baliabideen dimentsioa eta eskuragarritasuna. Auto-antolatutako funtzionamendua. Lan-talde garrantzitsuenek edo esanguratsuenek loturak izan ditzakete kudeaketa-zirkuluetan.

Bitartekaritza- eta dinamizazio-taldea

- **Zer:** Erabiltzaileei eta bisitariari arreta emateko funtzioak; jardueren, lan-taldeen dinamizazioa eta proiektuen artekoa; eta poloaren barrurako edo haren testuinguruarekiko beste elkarrekintza-espazio batzuk.
- **Nor:** Aldi baterako bitartekaritza-talde bat (urtebete egokia litzateke), unibertsitateekin edo prestakuntza espezializatuko beste zentro batzuekin, Lanbiderekin eta abarrekin sinatutako hitzarmen baten bidez kontratatutakoa. Postu horietako lehentasuna eman beharko zaie pertsona gazteei, lanpostu horretan esperientzia profesionala lortzeko eta beraien interesekin lotutako proiektuetan parte hartzeko aukera ikusten dutenei.
- **Nola:** Ezarritako harrera- eta dinamizazio-lanak + lan-talde edo proiektu zehatzetan parte hartzea / EKONOPOLOaren helburuekin bat datozen ikerketak edo berezko proiektuak garatzea.
- **Erreferentziatzko ereduak:** Zaragoza Activaren MIE programa (Mediación, Innovación y Emprendimiento)<http://blogzac.es/programa-mie-mediacion-innovacion-emprendimiento/>

Kolaboratzaileen sarea

- **Zer:** Jakintza espezifikoa, erreferentzialitatea edo harremanak ematea; lagungarri izatea egoera jakinetan; aukera berriak irekitzea edo lan-taldeetan sartzea.
- **Nor:** Entitate-sare bat, askotariko konplizitate-sare bat osatzen duena, EKONOPOLOan modu formalean parte hartzen ez duten pertsonak eta erakundeek osatua: enpresak, sindikatuak, elkarteak eta sare sektorial edo tematikoak, merkataritza-ganberak, profesionalen elkargoak, ikastetxeak, unibertsitateak, erakunde sozialak, herri-ekimenak, eragile informalak eta abar.
- **Nola:** Eskakizunpean hartzen dute parte, hainbat modutan, eskuragarritasunaren eta berezko interesen arabera.



Inplikazio-mailak eta pizgarri-sistema

EKONOPOLOaren operatibotasuna, liberatutako pertsonen lana gorabehera, antolakuntza-sistema batean oinarritzen da, aukera gehien emango dizkiona komunitateari, hainbat motatako eta hainbat intentsitate-mailatako inplikazio-, konpromiso- eta erantzukizun-moduetarako aukera emango dutenak eta aldi berean ordezkaritza-, ikusgarritasun-, eginbehar- eta eskubide-egoera gehiago sortuko dituztenak. **Hori modu praktikoan egia bihurtzeko beharrezko mekanismoak izango dituen eredu bat (bazkidetza-moduak, barruko araudia, hitzarmenak eta abar).**

Berebiziko garrantzia du pizgarri-sistema bat definitzeak, bideragarri egingo duena eragile guztiak organo eta parte hartzeko maila guztietan modu erantzunkidean inplikatzea, boluntariorzaren edo militantziaren mugetatik harago. Horrek berekin dakar **parte hartzeko baldintza materialak aitortzea**, eta horrek gehienbat lantzen denbora eskatuko du, bai produktiboa bai erreproduktiboa, baina baita, hein txikiago batean, beste baliabide eta kapital batzuk ere.

EKONOPOLOaren kodiseinu tailerretan jardueretarako hainbat neurri posible proposatu ziren, adibidez:

- **Denbora-bankua**, modu kolektiboan kudeatzeko zerbitzuekin, deskontuekin eta abarrekin trukatu daitekeen dedikazio indibidualeko denbora (kuota ordaintzeaz gain, formalki komunitatearen parte izan ahal izateko, urteko gutxieneko denbora bat beharko da).
- **Ordainketa edo salbuespen txikiak** dinamizazio-, prestakuntza-, *mentoring*- edo komunikazio-lanak garatzeko konpromisoaren ordainketetan (eskumenen arabera).



9. Ebaluazio- eta adierazle-sistema

ESS oraindik sortzen ari den eredu ekonomiko bat da, oraindik ere oso ekintza- eta eragin-gaitasun mugatua duena, baina garatzeko prozesuan dagoena, bete-betean. Orain arte sortzen ari zen mugimendu bat izan dena, mikro esperientziez, esperientzia informalez eta banakatuez osatutakoa, handiago bihurtzen ari da, eta formalizatuago eta konektatuago dago. Hori dela eta, artikulazio- eta hedapen-elementu moduan polo bat sortzeko une egokia den moduan, momentu honetan eraginak neurtzea eta ebaluatzea egingarriagoa eta beharrezkoagoa bihurtzen ari da.

Ebaluazio- eta adierazle-sistema EKONOPOLOaren amaierako diseinuari eta dimentsioari egokitu beharko zaie (hainbat balizko aplikazio-fase hartu beharko ditu kontuan); atal honetan laburtutako eta gutxi gorabeherako planteamendu bat egin da, kontuan hartu dituen **bai PROZESU- bai EMAITZA-adierazleak, EKONOPOLOaren garapenari jarraipena eta ebaluazioa egiteko aukera emango diona.**

> PROZESUaren adierazleak eta EMAITZAren adierazleak

PROZESU-adierazleekin jardueren kopurua, mota eta kalitatea neurtzen da, baita agian informalagoak, ukiezinagoak edo subjektiboagoak diren faktore batzuk ere, EKONOPOLOa modu egokian garatzeko eta balioa emateko beharrezkoak. EMAITZA-adierazleekin erreferentzia egiten diegu planteatutako helburuei egokitutako itzulkinari eta eraginei, EKONOPOLOa existitzearen eta haren jarduketa-ildoan emaitzatzen jo daitekeena.

Jarraian, hainbat adierazle aurkeztu dira, EKONOPOLOaren konfigurazioaren arabera, lehenetsuna emandako elementuen eta ildoen arabera, lagungarri izan daitezkeenak ebaluazio-sistema definitzeko.

ESKU HARTZEKO BIDEAK	ADIERAZLEAK	
	PROZESUA	EMAITZA
Sarbidea ESSra	Lehentasunezko harrera-prozesuen eta ildoen kopurua. * - Asmatzeari eta <i>networking</i> ari lotutako jardueren kopurua. - ESS ikusarazteko, dibulgatzeko eta haren inguruan sentsibilizatzeko jardueren kopurua.	- ESSra egiaz sartzen direnen pertsonen kopurua, ESSren dimentsioetako edozeinetan.
Ekintzailtza sozial kooperatiboa	- Ekintzailtza-ildoaren faseekin lotutako jardueren kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - Heldutako ekimenen kopurua (proiektuaren edozein egoera edo fasetan).	- Garatutako enpresa-planen kopurua. - Sortutako enpresa berrien kopurua (kooperatiben %).
Abian jartzea eta jarraipena egitea	- Haztegiaren espazioari eta <i>coworking</i>- espazioari lotutako ekimenen kopurua. - Modu pertsonalizatu eta espezializatuan lagun egiteari dedikatutako orduen kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - Praktika aktiboen komunitateen kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila).	- Merkatuko testen eta ebaluazio partekatuen kopurua. - Auditoretza soziala egiten duten entitateen kopuruaren igoera (eta haien emaitzen hobekuntzaren igoera-maila). **
Enpresak indartzea, finkatzea eta eraldatzea	- Kudeaketa-ereduak eta -tresnak hobetzera eta profesionalizatzera bideratutako ekintzen kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - Elkarlanaren kultura sustatuko duten ekintzen kopurua. - ESSren esparruaren parte ez diren eragileen arteko kontaktura eta harremanera bideratutako ekintzen kopurua.	- Barruko ekintzailtza eta elkarren kooperazioko proiektuen, berrikuntzari eta dibertsifikazioari lotutakoen, kopurua. - Garapenerako lankidetzak, tarteko entitate edo bigarren mailako kooperatiba berrien kopurua. - ESSren esparrurantz egindako egiazko eraldaketaren kopurua.
Orientazioa, prestakuntza eta enplegu-planak	- Enplegu-sorgune berriekin lotutako ekintzen kopurua. - Egindako orientazio eta prestakuntza egokituko ekintzen kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila).	- Orientazio- eta prestakuntza-ekintzetan parte hartu dutenen artean lana topatu duten pertsonen kopurua (Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako pertsonen % eta ESSren entitateetan sartutako pertsonen %).
Inbertsioa eta finantzazioa	- Kultura, finantza etikoak erabiltzea eta inbertsio soziala sustatzeko jardueren kopurua. - Inbertsio-topaketaren kopurua.	- ESStik finantzatzeko tresna eta programa berrien kopurua (tresna horien erabileraren igoeraren %, eta horien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - ESSren esparruan mobilizatutako

		<p>baliabide ekonomikoen kopurua (igoeraren %).</p> <ul style="list-style-type: none"> - EKONOPOLOaren berezko finantzaketa-iturrien dibertsifikazioaren ehunekoa. - EKONOPOLOak sortutako berezko baliabideen igoera. - EKONOPOLOaren inbertsioaren itzulkin sozialeko indizearen bilakaera.
Etika feminista	<ul style="list-style-type: none"> - Ekonomiari aplikatutako etika feministaren printzipioei lotutako kultura-aldaketara bideratutako jardueren kopurua. - Mekanismoak garatzeko eta dibertsitatea, irisgarritasuna, mutualismoa, kontziliazioa edo zaintzak bezalako alderdiekin lotutako baliabide komunekin lotutako ekintzen kopurua (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - Jardueretako emakumeen parte-hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera-berdintasunaren inguruko neurri zehatzen kopurua (generoa, kultura-artekotasuna, zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak eta abar). - ESSren entitateetan zuzendaritza-eta/edo ordezkari-tza-postuetan dauden emakumeen ehunekoa.
Berrikuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera berriak identifikatzera bideratutako ekintzen kopurua (kooperazioa errazten dutenen %). - Erabiltzailean oinarritutako diseinuarekin lotutako ekintzen kopurua, programa, prozesu, metodologia edo tresna berrietara bideratutakoena (eta haien erabilgarritasunarekiko asebetetze-maila). - ESSrekin lotutako herritarren laborategien kopurua. - Politika publikoetako berrikuntzarekin lotutako prozesu zehatzetako esku-hartzeen kopurua. 	<ul style="list-style-type: none"> - EKONOPOLOaren inguruan zuzenean sortutako gizarte erloko prozesu, produktu eta zerbitzu berrien kopurua. - Tresnen, metodologiaren eta prozesuen hobetze-maila, sistematizazio-maila eta ESSren logikarekiko egokitze-maila. - Aliantzak unibertsitatearekin, sistema zientifikoko eta teknologikoko eragileekin eta berrikuntzako beste eragile batzuekin.
Merkatu soziala	<ul style="list-style-type: none"> - Merkatu sozialaren garapenarekin eta hura mantentzearekin lotutako ekintzen kopurua. - Erakuslehoari edo <i>pop up</i> espazioei lotutako jardueren kopurua. - Kontratazio eta erosketa publiko arduratsuekin lotutako ekintzen kopurua. - Ekonomia komunitarioarekin lotutako eta babesa emandako proiektuen kopurua. 	<ul style="list-style-type: none"> - Merkatu sozialaren katalogoa osatzen duten entitateen kopuruaren igoera (eta eskaintzaren dibertsifikazioa eta aukera). - ESSren eragileen arteko merkataritza-jardueraren eta negozio-bolumenaren igoera (EKONOPOLOaren bazkideen arteko % espezifikoa).
Beste alderdi esanguratsu batzuk	<ul style="list-style-type: none"> - Hainbat eragileren arteko kooperazioaren bidez egindako programen edo jardueren ehunekoa (eragile publikoek, pribatuak eta/edo zibilek elkarrekin esku hartzen dutenen %). - Jardueretako Bilbo Zaharreko, San Frantziskoko eta Zabalako parte hartzaileen kopurua. - Hainbat hizkuntzaren presentzia 	<ul style="list-style-type: none"> - ESSri lotutako politika publikoen, esparru arautzaileen eta aurrekontuen igoera. - REAS Euskadiren bazkide diren entitateen igoera. - Kide den tokiko, estatuko eta nazioarteko sareetako eta programetako presentziaren igoera (horietan profil aktiboa eta garrantzia edukitzea).

	(gaztelaniaren, euskararen edo beste hizkuntza batzuen erabileraren %, eta proiektu eleaniztunen %).	<ul style="list-style-type: none"> - EKONOPOLOaren aitorten- eta erreferentzialtasun-maila, auzoan, Bilbon eta Bizkaian (erabilerari, balioari, nortasunari, testuinguruarekiko egiazko harremanari eta abarri dagokionez). - Foro espezializatuetakoa aurkezpenak (tokikoen, estatukoen eta nazioartekoen %). - Hedabide jeneralisten presentziaren igoera. - Hedabide digitaletako eta sare sozialetako eraginaren igoera. - EKONOPOLOaren aztarna ekologikoa.
--	---	---

* Beltzez markatu dira proposatutako 58 adierazle posibleetatik lehentasunezkoetat jotako 20.

** Auditoretza soziala oso tresna erabilgarria da ebaluazioa ESSren eragileetara hedatzeko, EKONOPOLOaren osotasunaren ebaluaziotik harago.

> PARTE-HARTZEaren adierazleak

EKONOPOLOaren helburu espezifikoetatik harago, parte-hartzearen hainbat alderdirekin lotutako faktoreen bilakaerari erantzun behar zaio modu transbertsalean.

Zentzu horretan, honako hauek izan daitezke adierazle posible batzuk:

- Artatutako pertsonen kopurua.
- Jarduera puntualetan parte hartu dutenen kopurua.
- Programetan edo urteko 5 jardueratan baino gehiagotan parte hartu dutenen kopurua.
- Komunitatearen kideek jarduerak kudeatzera eta antolatzen bideratutako orduen kopurua.
- Jardueretan parte hartu dutenen tipologia (jatorria, adina, generoa, profil-mota, ESSren aurreko jakintza-maila, parte hartzeko motibazioa).
- Gobernamentu-ereduaren bilakaera-maila eta haren maila bakoitzean parte hartzen ari direnen kopurua (bazkideen kopurua, lan-taldeak, loturak edo ordezkariak eta abar).
- Eskuragarri jarritako parte hartzeko tresnekiko eta bideekiko asebetetze-maila eta parte hartzetik eratorritako itzulkinarekikoa.
- Jasotako kexuen eta iradokizunen kopurua.

Horrez gain, urtean behin, inkesta-formulario bat eta/edo *focus group* bat edo elkarrekintza handiagoko antzeko formatuko zerbait egin ahal izango da zozketa baten bitartez hautatutako parte-hartzaile guztien lagin batekin, informazio kualitatibo gehiago izateko asebetetzearekin eta hobetzeko aukerekin lotuta.

> TESTUINGURUaren adierazleak

Horrez gain, kontuan hartuta EKONOPOLOak AUZOKIZUNA 2020 planaren esparruan duen forma zehatza, komenigarria izango da adierazle orokor batzuei jarraitzea, hiriko behatokitatik jasotako datuetan oinarrituta (ekonomikoak, auzokoak eta abar); horiek aukera emango dute auzoetako aldagai ekonomiko eta sozial esanguratsuenen bilakaera monitorizatzeko.

10. Inbertsio- eta finantzaketa-plana

Atal honetan gutxi gorabeherako inbertsio- eta finantzazio-egoera bat planteatuko dugu, lagunduko duena erabakiak bideratzen EKONOPOLOaren hurrengo urratsei aurre egitera. Proiektu osoa ebaluatu beharreko hiru urteko beta prozesu baten moduan planteatzen da, eta aurrekontuari dagokiona era berean planteatzen da; izan ere, **beta proiektu guztietan bezala, zaila da jakitea inbertsioen, gastuen eta diru-sarreraren aukera eta aurreikuspen guztiek dimentsio egokiak dituzten** (proiektu osoari eragiten dioten eta garbi ez dauden aldagai gehiegi daude, eta etorkizuneko egoera oso ezberdinak sortzen dituzte).

Edonola ere, hemen aukera batzuk eman dira proiektuaren abiarazpenari eta sostenguari heltzeko. **Aukera horiek, nagusiki, aurrekontu publikoetara lotuta egon behar dira (poloa zerbitzu publiko bat den heinean)**; baina, gainera, alderdi pribatutik eta gizarte zibiletik datozen erantzunkidetasun moduei begiratu behar die. Gainera, EKONOPOLOa gai izan behar da berezko baliabideak sortzeko proiektu espezifikoak sortuta eta zerbitzu espezializatuak emanda.

10.1. EKONOPOLOaren espazioetako inbertsioa

Oso zaila da kalkulatzeko EKONOPOLOarentzako aukera posibleen espazioetan behar den inbertsioa, ez baitago ziurtasunik haien erabileraren, heltzeko epeen, higiezinaren egiazko egoeraren, heldu beharreko esku-hartzearen motaren eta abarren inguruan. Dena den, jarraian taula txiki bat aurkeztu da, eta bertan zerrendatu dira Harrobi plazaren inguruko espazioarekin planteatu diren hiru faseak. Unea iritsitakoan, beharrezkoa izango da kasu bakoitzarentzako proiektu espezifiko bat sortzea, fase guztietan alderdi guztien arteko batasuna eta koherentzia gordeta.

ESPAZIOAK ETA AZPIEGITURAK ERABERRITZEAN ETA EGOKITZEAN EGINDAKO INBERTSIOA	
AZALPENA	ZENBATEKOA
1. FASEA: Hil eraikina + Auzo Factory (3. eta 4. solairua).	335.000
2. FASEA: Polizia-etxearen lokalak gehitzea + bi eraikinak kanpotik lotzea	820.000
3. FASEA: Harrobia eraikinaren 5. solairua gehitzea	500.000
Guztira	1.655.000 €.

- Gutxi gorabeherako kalkuluak dira, kontuan hartu dituztenak espazioen egungo egoera, beren tamaina, aurreikusitako erabilerak eta abar. Hein handi batean proiekturako *ad hoc* diseinatutako ekipamendua, ESSren hornitzaileekin 0 kilometroko logikatik ekoizitakoa, ere jaso da.

- Faseei heltzeko denborazkotasuna ez da zehaztu.

10.2. Apustuaren neurriko aurrekontua

Apustu handi bat behar du EKONOPOLOa bezalako beharrezko proiektu batek, ESSk behar duen bultzada emango duena, hark motor sozioekonomiko eraldatzaile moduan duen potentzial osoa eman dezan. Apustu horrek ez du soilik azpiegitura bermatu behar, ekimenei laguntzeko eta lagun egiteko aukera ere eman behar du, eta haien garapena erraztu eta eragina handitu behar du.

EKONOPOLOAREN USTIAPEN-GASTUAK				
AZALPENA	2019	2020	2021	2019-21 GUZTIRA
LANGILEAK (kopurua)	153.000 (3)	250.000 (5)	350.000 (7)	753.000
Estrategiari heltzea	45.000 (1)	45.000 (1)	45.000 (1)	135.000
Barruari heltzea	45.000 (1)	45.000 (1)	90.000 (2)	180.000
Kanpoei heltzea	-	45.000 (1)	45.000 (1)	90.000
Proiektuei heltzea	-	45.000 (1)	90.000 (2)	135.000
Intendentziari heltzea	45.000 (1)	45.000 (1)	45.000 (1)	135.000
Plusak / osagarriak / dietak / beste pizgarri batzuk	18.000	25.000	35.000	78.000
PIZGARRIEN SISTEMA * Komunitatearen inplikazioa	30.000	50.000	70.000	150.000
BITARTEKARITZA-PROGRAMA Kontratazioa + baliabideak	-	120.000 (4)	240.000 (8)	360.000
AZPIKONTRATAZIOAK Programak eta jarduerak, prestakuntza, laguntza, komunikazioa garatzea.	250.000 €.	300.000	350.000	900.000
PROIEKTUEN ZORROA **	250.000	450.000	600.000	1.300.000
ABIAN JARTZEA Webgunea, komunikazioa, irekitzeko eta sozializatzeko jarduerak, aurkezpenak eta abar.	100.000	50.000	-	150.000
BESTE GASTU BATZUK	30.000	40.000	50.000	120.000
Guztira	813.000 €.	1.260.000 €.	1.660.000 €.	3.733.000 €.

Hiru ekitaldietako gastuaren zenbatekotik (2019-2021):

- Aurrekontuaren % 33,8 poloa eta bertan garatutako proiektuak kudeatzera eta dinamizatzen bideratuta dago (langileak kontratatzea, % 20,2; komunitatearen inplikaziorako pizgarriak, % 4; bitartekaritza-programa, % 9,6).

- Aurrekontuaren % 58,9 zerbizuen eskaintzari eta proiektuen eta jardueren garapenari dedikatuta dago (azpikontratazioa, % 24,1; lehia irekiko zorroa, % 34,8). % 7,3 abian jartzearen eta beste gastuen kapituluetan dago.

* EKONOPOLOaren barruko ekonomiaren zati bat Ekhi Txanpona txanpon osagarriaren bitartez kudeatu liteke; eta, gainera, monetizatu gabeko kapitalen beste truke-modu batzuk ere erabili ahal izango liriteke denbora-banku baten bitartez (berezkoa edo auzoan Aldauritik dagoeneko funtzionatzen duenari lotua).

** Berez esleitu gabeko baliabideen zorro bat, hainbat motatako proiektuak garatzeko, EKONOPOLOaren komunitateari irekitako aldizkako deialdien bitartez banatuak. Funtzionamendua honako hauetan oinarritzen da: 1) Eskuragarri dauden baliabideak definitzea; 2) Kudeaketa-*softwarea* erabiltzea (adibidez, [CoBudget](#), [Enspiralea](#)); 3) Adjudikazio-errondak x hilean behin; 4) Bazkide bakoitzak parte hartu dezake baliabideak esleitzeko prozesuan (prozesuak aurrera ateratzen dira eskatutako finantzazioa lortzen badute); 5) Baliabideen zorroaren zati bat handitu liteke, *matchfunding*aren bidez.

10.3. Dibertsifikatutako diru-sarrerak

EKONOPOLOa garatzeko beharrezko aurrekontua diru-sarreraren iturri dibertsifikatu batean oinarritu behar da, nagusiki publikoa den batean (erakundeen eta sailen arteko ikuspegia duen batean), eta proiektuaren egonkortasuna bermatuko duen batean, alderdi pribatutik eta gizarte zibiletik, komunitatetik bertatik eta intereseko taldeetatik haziko den parte-hartze erantzunkidearekin.

EKONOPOLOAREN DIRU-SARRERAK				
AZALPENA	2019	2020	2021	2019-21 GUZTIRA
BAZKIDEEN KUOTAK (kopurua) *	17.200 (28)	33,750 (65)	57.500 (125)	108.450
Bultzatzaileak	8.000 (5)	16.000 (10)	22.000 (15)	46.000
Produserrak	6.200 (20)	12.750 (50)	25.500 (100)	44.450
Babesleak	3.000 (3)	5.000 (5)	10.000 (10)	18.000
ERAKUNDEEKIKO HITZARMENAK polo garatzeko eta kudeatzeko	425.000	525.000	650.000	1.600.000
Bilboko Udala	325.000	325.000	325.000	975.000
Beste euskal erakunde batzuk	100.000	200.000	325.000	625.000
INBERTITZEKO BESTE MODU BATZUK ** finantza etikoei eta ESSri lotuak	50.000	150.000	200.000	400.000
DIRU-LAGUNTZAK, LIZITAZIOAK ETA KONTRATU PUBLIKOAK *** tokiko eskalan eta proiektu espezifikoetarako	250.000	430.000	600.000	1.280.000
ZERBITZUAK EMATEA	20.000	40.000	60.000	120.000
JARDUERETAKO IZEN-EMATEAK	15.000	25.000	30.000	70.000
ALOKAIRUAK	15.000	35.000	55.000	105.000
BESTELAKO DIRU-SARRERAK	20.800	21.250	7.500	49.550
Guztira	813.000 €.	1.260.000 €.	1.660.000 €.	3.733.000 €.

* 8.1. Puntuaren atal batean (44. orrialdea) kuota-motak zehazten dira, bazkide-motaren eta antolakuntza-dimentsioaren arabera.

** ESSren finantzazioari eta inbertsioari dedikatutako eragileek jada badituzte nahikoa baliabide eta tresna egoki entitateen eta proiektuen abiarazpena eta hazkundea bultzatzeko. Garrantzitsua da ere erreserba-funts kooperatiboetako balizko baliabideak artikulatzea, elkarren laguntzari, prestakuntzari, elkarren kooperaziorako harremanei edo sustapen kultural eta profesionalari bideratutakoak. Horrez gain, komunitateek eta intereseko taldeek inplikazio erantzunkide eta banatu handiagoa behar dute sortutako proiektuetan, komunitatearen beraren zerbitzura daudenetan. Datozen urteetan, finantza etikoei lotutako bide berriak kuantitatiboki eta kualitatiboki hazi beharko lirateke, eta EKONOPOLOaren ingurua egokia da horretarako.

** EKONOPOLOtik finantzazio-bide hori indartu behar da, eta bi bidetan jarri behar da arreta, gehienbat:

1) Tokiko mailan, sustapen ekonomikoa bezalako esparruetara, garapenerako lankidetzaren, gizarte kontuen edo enpleguaren esparruetatik haragokora bidea irekitzeko, gehienbat sustapen ekonomikoa bezalako esparruetarantz, baita, ordea, zuzenean gai jakin batekin lotutako sailletara ere, adibidez, energiara, ingurumenera, kulturara, berdintasunera eta abar.

2) Kapitulu honen barruan, funtsezko finantzazio-bide bat da Europakoa, EKONOPOLO osoarentzat egokiak diren programa ugartan dibertsifikatutako aukerak izango dituena, baita EKONOPOLOaren lan-ildo edo proiektu jakin batzuentzat ere, adibidez: *Espainia, Frantzia eta Andorraren arteko Lurralde Lankidetzako Programa Operatiboa (POCTEFA), Europako Hego-ekialdeko Guneko Lurralde Lankidetzako Programa (SUDOE), Ingurumenera eta Klimaren Aldeko Ekintzako Programa (LIFE) edo Europa Herriarrekin Programa.* Bilbao Ekintzan talde bat dute aukera horiek ikertzeko.



11. Hurrengo urratsak

2018ko lehen zatian egindako zazpi hileko lanak aukera eman du EKONOPOLOaren ideia zehazteko, lurrera ekartzeko. Nolanahi ere, orain, urtearen bigarren zatian, proposamena findu egin behar da, kokatuta, erabakiak hartuta, kontu batzuk modu xehean zehaztuta eta ekintza zehatzak eginda. Horretarako hartu beharreko urrats batzuk dira honako hauek:

Bilboko Udaletik

Bilboko Udalak erabakiak hartu beharko ditu proiektuaren aldeko apustuaren eta bertan izango duen inplikazioaren inguruan. Aurrekontuaren inbertsioari eta EKONOPOLOan zuzenean inplikaturako langileei dagokienez ere bai, baita ESSren inguruko sustapen-plan bat definitzeari buruz eta Bilbao Ekintzatik ildo estrategiko bat abiarazteari buruz ere.

Epe laburrean, beharrezkoa da, batetik, baliabideak esleitzea, eta, bestetik, beharrezkoa da 2018ko bigarren zatian EKONOPOLOaren hurrengo definizio-faseari heltzeko prozedura, hura abian jarri aurretik.

REAS Euskaditik

REAS Euskadik erabakiak hartu beharko ditu proiektuaren aldeko apustuaren eta bertan izango duen inplikazioaren inguruan. Honakoen inguruan ere bai: REAS Euskadiko taldea eta ESSren esparruko beste eragile esanguratsu

batzuk polora mugitzeari buruz, EKONOPOLOaren abiarazpenean berezko baliabideak inplikatzeari buruz eta haren programa eta jarduera batzuk garatzeari buruz.

Beste eragile batzuk inplikatzeari buruz

Elkarrizketak irekitzea beste eragile sustatzaile eta erakartzaile / bultzatzaile batzuk, erakundeetako batzuk (Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta ESSren esparruko batzuk bilatzeko elkarrizketak irekitzea, EKONOPOLOarekin bat egin dezaten azken erabakiak eta abian jarri dadin. Alde biko elkarrizketez gain, interesgarria da ere AUZOKIZUN 2020 foroaren lan-espazioa; bertan, poloa izan behar da lehentasunezko proiektuetako bat.

Espazio fisikoari buruz

EKONOPOLOa kokatzeko espazio fisikoa zehaztu beharko da (gutxienez abian jartzeko lehen faserako). Espazioa egokitzeko proiektua diseinatzeko eta egikaritzeko lizitazioa prestatzea.

Erreferentzia, txosten honen 6. atala.

Inbertsioari eta finantzazioari buruz

EKONOPOLOaren inbertsio-plana zehaztea, lehenik, espazioak egokitzeko, langileak kontratatuzko, abiarazpenerako ekintzetarako eta lehen jardura-programetarako. Eragile finantzatzaile nagusiekin akordioak ezartzea.

Erreferentzia, txosten honen 10. atala.

Gobernamendu-ereduari buruz

Gobernamendu-eredua xehe-xehe zehaztea eta formalizatzea. Desiratutako eredia, eta, gutxienez, abiarazteko lehen faserako bertsio bideragarri bat definitzea. Estatutuak eta barne-funtzionamenduaren araudia idaztea.

Erreferentzia, txosten honen 8. atala.


Edukiari buruz

EKONOPOLOaren jarduketa-ildoak ordezkatzeko dituzten lehen programak eta jarduerak hautatzea, lehentasunaren arabera ordenatzea eta zehaztea.

Erreferentzia, txosten honen 5. atala.

Ekintza-plana eta kronograma

Hartutako erabakien arabera, eta, beraz, EKONOPOLOa zehazteko moduaren arabera, 2019-2021 aldirako ekintza-plan bat eta kronograma bat zehaztu behar da.



**Urratsez urrats
EKONOPOLOrantz**

**ERRAZ
BIHURTU!**

Dokumentu honen edizioa
amaitu zen
2018ko uztailaren 20an, ostiralean.





QU

QU

CÓMO/NO LA
EMPRESAS/PA
QUÉ ESTEN E
QUE NELESS
LUEGO VOLA

BANCO DE
PROYECTO DE M
COMPETITIV

- IMPPLICANDO A LOS PARTICIPANTES
PLAN COMUNICACIÓN BASADO
LAS PERSONAS
AUMENTANDO LA PARTICIPACIÓN
EN LAS DECISIONES

ESPACIOS SOCIALES
PARA LA DIVERSIDAD
PERAR
RELACIONALES
GENERACIÓN/NIVEL CULTURAL

UN LUGAR DONDE
PUEDEN CREAR PROYECTOS

PROYECTO DE INVESTIGACIÓN
CONTINUA
CONOCER LOS
DE ESS
SOCRÁTICO

PROYECTO DE INVESTIGACIÓN
CONTINUA

CONOCER LOS
DE ESS
SOCRÁTICO